

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1989ko Apirilak 7 17. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



Trafikoa zuzentzea da Ertzantzaren lanik garrantzitsuenetarikoa Arrasaten

## Ertzantzak, lau urte herrian

1984ean Ertzantzak, Arrasaten, bere lehen komisaldegia ezarri zuen. Orduetik hona, denbora luzea pasa da; baina oraindik ere gure artean aktualitatea duen gaia dela uste dugu. Arrasateko komisaldegian, gaur egun, 130 ertzain daude, berauetatik 12 emakumeak izanik. Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Gatzaga herriek osatzen dute bertako distritoa. Ertzantzaren inguruan arrasatearron eritzia, beste gai askoren inguruan gertatzen den bezalaxe, ez da bateratua. Hala ere, beraiek aipatu digutenez, gazteen artean beraien aurkako jarrera nabarmena da. (14. or.)

## ORAIN ETA HEMEN

**Fagorrek Fabrelec enpresaren akzioak eskuratuko ditu**

Bat egite honekin, Estatuako lider bihurtuko da, merkatuaren %30a kontrolatuko duelarik (10. or.)

## ELKARRIZKETA

**Jose Angel Irigarai**

“Txepetx”en liburuaren aurkezpenaren bezperatan, idazle nafar honek bere figurari buruzko zertzelada batzuk ematen dizkigu (17. or.)

## PODIUMA

**Arantzazu Zubia**

Gimnasia erritmikako irakaslea

(19. or.)

## BENITO LERTXUNDI

Barruko orrialdeetan, abeslari oriotar honekin egindako elkarrizketa luzea eskeintzen dizuegu.

## “HERRIA EZAGUTUZ”

**Sariketa**

Zeuk aukeratutako bideofilmea euskaraz irabazi nahi baduzu, aste honetan bertan postala bidali galdera honi erantzunez: zein kaletan jaio zen Pedro Biteri filantropo mondragoe-tarra?



# HOTZ - BERO

**zibro**  
**kamin TURBO**

Kanpantorpea, 2

Tfnoa: 79 70 98 79 67 54

ARRASATE



## BEHARREZKO TELEFONOAK

### Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	795300
Igualatorioa .....	790500
Santa Agedako ospitalea	
(gizonak) .....	793900
(emakumeak) .....	794411
Buru osasunerako zentrua .....	799011

### Gurutze gorria:

Bergara .....	765576
---------------	--------

### DYA

Antzuola .....	766291
----------------	--------

### Anbulatorioak

Arrasate .....	791357
.....	799722
Oñati .....	780852
Eskoriatza .....	798896
Aretxabaleta .....	797458
Aramaio .....	(945) 455116

### Anbulantziak:

Gipuzkoako anbulantziak .....	458744
-------------------------------	--------

### Udaltzaingoa:

Oñati .....	780411
Bergara .....	761469
Arrasate .....	791439
Aretxabaleta .....	791052
Eskoriatza .....	790322

### Ertzantza:

Arrasate .....	797199
----------------	--------

### Suhiltzaileak:

Udal taldea .....	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua .....	792072
Zubillagako Eskualde Parkea .....	782800

### Matxurak:

Urak (udal zerbitzua) .....	790900
Elektrizitatea (Iberduero) .....	790581

### Garraioak:

Taxiak .....	791222
P.E.S.A. ....	791419

### Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza .....	797211
Abaroa jubilatuen egoitza .....	798157

### Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta	
Erbiltzaileen Elkarteak .....	798777

## 7 OSTIRALA

- **Zinea:** Alai: "Soldadito español" Novedades (Bergara): "El sendero de la traición"
- **Bertso afaria:** 9,30etan Euskal Tokian (AED).
- **Goardiako farmazia:** Irizar, Erguin.

## 8 LARUNBATA

- **Zinea:** Alai: "Gorilas en la niebla" Novedades (Bergara): Los alegres pícaros" 5,7,30.
- **Txotxongilo:** "Erreka Mari", Amayan, 6etan.
- **Pin-Pong txapelketa:** "Gerrate mundiala", Bergarako gaztetxean. Antolatzailea: Kakitzat.
- **Jaialdia:** Egan, Txibiston, 12,30ak arte dohainik.
- **Goardiako farmazia:** Amezua, Santamaina.

## 9 IGANDEA

- **Zinea:** Alai: "Gorilas en la niebla" Novedades (Bergara): "El sendero de la traición" 5; 7,30; 10,15.
- **Goardiako farmazia:** A. Ruiz, Maalako Errabala.

## 10 ASTELEHENA

- **Zinea:** Alai: "Gorilas en la niebla" Novedades (Bergara): "El sendero de la traición" 7,30.
- **Goardiako farmazia:** A. Morales, San Andres.

## 11 ASTEARTEA

- **Zinea:** Alai: "Gorilas en la niebla"

- **Umorezko saioa:** "Zeharbideko berri", Koldo Ameztoy. UNEDeko areto nagusian, 7etan.



Koldo Ameztoy

- **Hitzaldia:** "Un futuro para nuestro pasado" liburuen mamiauren aurkezpena: Dionisio Amundarain, Iñaki Larrañaga, Julen Arejola-leiba. Monterronen, 7etan.
- **Goardiako farmazia:** Ruiz Torre, Erdiko kale.

## 12 ASTEAZKENA

- **Hitzaldi zikloa:** ETaren historia: "Sorreratik V. Asanbladaino: 56-68" Jesus Mari Matxain. Oñatiko Kultur Etxean (Santamaina plazan), 7,30etan. Antolatzailea: Euskara Batzordea, Udal Euskaltegia, IVAP Barnetegia.
- **Goardiako farmazia:** S. Español, Iturriotz.

## 13 OSTEGUNA

- **Zine Klub:** "Remando al viento" Gonzalo Suarezena. Amayan, 8,30.
- **Hitzaldia:** "V. Asanbladatik Estatutoraino: 68-79": E. Lopez Adan, "Beltza". Oñatiko Kultur-Etxean, 7,30etan
- **Goardiako farmazia:** Corcuera, Elcano.

## ERAKUSKETAK

- **Juan Chillida:** Pintura-erakusketa, Galeria 44 (Zerkaosteta 8), hilaren 15era arte.
- **Orain dela 30.000 urte:** Labeko Koba: Monterronen, hilaren 7tik aurrera.



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Zeharkale Estalia, 1-1. B  
20500-ARRASATE -TF.797164

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Juan Luis Azkarate  
Bego Zubia

**Publizitatea:** Amaia Garro

**Maketazioa:** Goio Arana

## Erredakzio

**-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki  
Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan  
Martin Elexpuru, Mikel Arregi,  
Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso,  
Gerardo Markuleta, Mertxe Garai,  
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,  
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila  
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion  
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo U.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa:** Orkatz Skaut-Taldea

**Harpidetzak:** Zeharkale Estalia, 1-  
1b. Tfnoa. 797164


**Copyright:** ARRASATE PRESS

**Tirada:** 2.800 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain  
hartzen aldizkarian adierazitako esanen  
eta eritzien erantzunkizunik.



## Gizakia, irakurle

Euskal Idazleen Elkarteak, Liburuaren Legea litekeen proiektuari ekin zionean helburuen arteko bat irakurlearen arloari zegokiona genuen. Zergatik? Arrazoi xehe baten-gatik: zer egingo genuke idazleok irakurlerik gabe?

Bizi garen Herri honek, orohar, urrundik jarraitu ditu edozein gizarte aurrerakoik ezinbestekotzat dauzkan parametroak. Ohiturarik eza; axolagabekeria batzuetan, zabarkeria askotan, planteamentu humanista gutxi egin diogu historikoki gure herri-izakerari, bide horretatik bapateko etekinik aterako ez genuelakoan, agian. Oraindik ez dira hogeitabost urte igaro, Arrasaten ziharduen fraide batek goi Batxilergoari aukera eman nahi izan eta herriko zenbait "instantzia teknizista"atik ikaragarriko kritikak egin zizkiotela. Zorionez, "homo clemens" burugogor xamarra zen.

Irakurlearena aipatu dut hasieran eta, duda izpirik ez, gehien atsegin dudana giza-alderdietako bat delako egin dut. Mugek mundua Estatutan zatikatzen duten arren, bakoitzak bere berezitasun eta hizkuntzak dituelarik, denok elkartzen gaituen


elementua dugu liburua, askoren ustez giza-adimenak erdietsiriko asmakizunik gailena. Eta liburua kultur garragailu egokia baldin bada edukinaz gizadi osora iristen delako da, irakurle bakoitzak bere atsedenerako behar duen oreka eskainiz. Ez da gutxi, ez, halajaina!

Azken urteetako anitz hileta-jolek esan dute liburuaren amaiera aurrean geundela, bideoa eta telebista zirela eta. Gero eta gutxiago dira horren aburukoak, pantailak irudi osatua, bukatua eskeintzen digula eta liburuak jarrera aktiboagoa eskatzen duela uste dutenen kopurua haunditzen baitoa. Liburuak, irakurgai guztiek, asmamena dute dantzan ipintzen, estetikoan garaturiko kontzientziak gero eta homimendu gehiago exigitzen duelarik. Ongi hezitako gizakiek -ez ditut sailkapen horretan neurri bakarrekoak sartzen -ez dute inoiz aktibotasuna pasibotasun antzugarriarengatik sakrifikatuko.

Zein ederra den irakurgai atseginarean hildoetatik gogo-osasunaren ahaleginetan ihardutea. Irakurgai aukeratzeko askatasunak berak askatuko gaitu ezjakintza ausarti eta kamustailearen hatzaparretatik.

*Josemari Velez de Mendizabal*

*inpresio ona*



**inprimategia eta  
autoedizio  
zerbitzuak**

Ozaeta 1, Tfnoa 76 27 41 BERGARA






**ARRATE IRRATIA, S.A.**  
FM - 101,5

Goizeko 9etatik  
Gaueko 11ak arte  
Irratsaio denak EUSKARAZ

ARRATE IRRATIA  
EUSKAL SINTONIA

**GIROA  
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE



**gili gili**

Iturriotz,9 Tfnoa:799457

**ASA**  
ASEGURUAK

Zeu ezertara behartu gabe, aseguru mota guztien informazioa emango dizugu, zure beharretarako egokiena zein den adieraziz.

- \* Etxeko Arrisku Orotarakoa
- \* Auzo-Komunitateko Arrisku Orotarakoa
- \* Saltokietako Arrisku Orotarakoa
- \* Enpresa Txiki eta Erdi mailatakoa
- \* Pentsio-Fondoak
- \* Jubilazio-Planak
- \* Istripuak
- \* Bizia
- \* Automobilak
- \* Erantzukizun Zibila
- ... etab

ZURE ESANETARA GAUZKAZU!!

Maalako Errabala, 33-Beheazpia  
Tfnoa. 796900

ARRASATE

## Denok berdinak ote?

1985ean Indiako Bhopal herrian gas pozointsua isuri zen Union Carbide enpresa amerikarraren lantegitik. Ondorioak: 3.400 hildako eta 200.000 pertsona zaurituta, batzuk oso larriki.

Orain dela gutxi amerikarrek eta Indiako gobernuak lortu duten akordioaren arabera, Union Carbidek 55.460 milioi pezeta ordainduko die kaltetuei ordainetan.

Aldi beretsuan, Estatu Batuetako epaile batek horrela erabakita, Marc Christian, Rock Hudsonen amoranteak, 2.566 milioi pezeta jasoko ditu, hark HIESa kutsatu ote zioneko ordainez.

Non dago proportzioa, zuzendari jauna? Denok berdinak omen gara, baina beti bezala, batzuk berdina-goak.

M. A. Juaristi

## Noizko Euskadiko Itzulia Arrasatera?

Zuzendari jauna:

Aurtengo edizioaren etapa bat Arrasaten amaitzen zelakoan geunden, baina, gure atsekaberako, beste behin ere ez dela horrela izango jakin izan dugu.

Ez litzateke, ba, hain zaila izan beharko beste urte baterako txirridulari idoloak gure herrira ekartzea: asko gara Arrasaten txirrinuzaleak, antolaketa mailan ere badugu esperientziarik, Fagor taldearen jaioterria hemen dago...

Ea 90erako Marino, Jokin, Roche, Gorospe, Indurain, Fede, Delgado, Pello eta nazioarteko tropelaren florea ekarterik dugun!

Joselu B.H. & Cia.

## Metaliteratura

"Gustora idatziko nuke edukiko banu zer idatzi" esaerak gogora dakarkit nire aitak, behin baino gehiagotan, sukaldeko mahaian kontatutako xelebrekeria bat. Ba omen

dabil lagun talde bat tabernaz taberna basoerdiak edaten eta momentu batean haien hizketaldian honako pasadizoa kontatzen du baten batek: "lehengo egunean Urليا diru larrialdi batetan bere familiako senide aberats batengana joan huen diru eske. Senide aberatsak entzun zian Urliaren eskaria baina ez zitxion laguntzarik eman aitzaki gisa zera erantzunez, berak dirua eduki, oso gutxi zeukala.

— "Eguneroko gastuei aurre egiteko eta poltsikorako behar dudana soilik. Beste guztia inbertituta zeukeat".

Urليا buru makur itzuli huen etxera, arazoa berak uste baino latzagoa zela pentsatuz.

Lagun multzoak berea egiten du urliaren arazoa eta hartara jarrikeri erreakzio diferentek -nork bere egoera ekononikoaren arabera azaltzen dituzte. Diruz okerren dabilenak honela erreakzionatzen omen du:

— "Hori duk putakumea. Nik bere lekuan eskatutako guztia eta gehiago emango nitxioketan".

Nire aitak irribarrez honela bukatzen zuen bere platika:

— "Laguntzeko modurik ez daukanak beti laguntzeko borondaterik handiena".

Eta niri haren parean eserita irri-ergel bat ermetzen zitzaidan, barruko kezka eta ezadostasunaren estalgarri.

Treku - Orrua (Zumaia)

## IRAKURLE MAITEOK:

Azken bolada honetan jazotzen ari garen karten kopurua jeisten ari da. Zer gertatzen da, inork ez dauka zer esaterik? Uste dugu aldizkaria bere gustoko ez duen jende asko izango dela. Bialdu kritikak eta; aldiz, zuen gustokoa bada, esan zergatia.

Ea lortzen dugun Arrasate Press guztion artean komunikatzeko tresna bihurtzea.

Animatu ta bidali zuen eskutitzak.



Zer deritzozu alkateak egun osoko dedikazioa izateari?



**Marije Ruiz de Azua**  
(irakaslea)

Benetan lana egiteko liberatu baldin badute ondo ikusten dut alkatea liberatzea.



**Eusebio Viamonte**  
(langilea)

Ondo, Arrasate jende asko bizi den herria da eta alkateak herriari denbora gehiago eskaini behar dio.



**Asier Bengoa**  
(langilea)

Ondo, hobeto. Horrela bere denbora ez die beste lan batzuri eskainiko eta ez ditu beste ardura batzu izango.



**Josefina Iglesias**  
(etxekoandrea)


Ondo ikusten dut berak betetzen duen postuari denbora gehiago eskaintzea. Herriak dituen beharrak ikus ditzala eta horiei bere denbora eskain diezaiela.

**L E N I Z**

**AUTO ESKOLA**

ARRASATE-Aldai,9-Tel. 79.46.04

ESKORRIATZA-Arana,13-Tel. 79.36.59



**KAJOI TABERNA**

**erdiko kale 22**  
**Tfnoa: 79 32 27**

**I  
R  
A  
T  
I**

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**



**EDERRA**

Iturriotz kalea, 12

Tfnoa: 79 96 25

Arrasate



“Ajuria Eneara iritsi ginenean, etxe honetako zein lekutatik irtengo genuen bakarrik genuen buruan, baina kargu honek dituen gauza atseginez gozatzen ikasi dut. (...) Ez daukat hitzik lehenengo egunak nolakoak izan ziren adierazteko. Protokoloa nekeza gertatu zait, baina poliki poliki zerbaitetarako dela konturatzen zara. Anka sartuz ikasi dut. (...) Ardantzak bere lanak egiten ditu eta nik neureak. Asteburuetan, teoriak elkar ikus dezakegunean, beti zerbait. Edota neuk, eta batzutan biok. Eta jendeaurrean egoteak elkarrekin ez egotea esan gura du”

*(Gloria Urteaga, lehendakariaren emazteak  
“Imagen Vasca” aldizkarian)*

“Union Cerrajera-k iaz 19.700 milioi pezetako balioa zuten produktuak saldu zituen, 1987an baino %39 gehiago, ekitaldi honetan 14.100 milioi lortu zuelarik. Sektorerearen Birmoldaketa-egitasmoan aurrikusi zen legez, 1988ko amaieran Bergarako lantegia banatu egin zen eta elkarte autonomo independente bihurtu zen, Bergarako Labe Garaiak izena hartu zuelarik. Gaur egun Union Cerrajera barruan dagoen konpainia berri hau zain dago, Jose Maria Aristrainek zuzentzen duen taldeak bere egunean paktatu zuen erosketa egiteko”

*(DV egunkariaren Ekonomia orrialdeetan)*

“Kode Penalaren Erreformaren oinarritzko exigitziak: Bortzaketa maginatik sartzeaz gain, ipurdi eta ahotik sartzea dela adieraztea; iraina jaso duenaren barkamena kentzea; sexu-lege hausteak lege haustetzat hartzea eta lege haustean ikerketan emakumea iraintzen eta laidatzen duten funtzionariak (fiskalak, epaileak, poliziak...) zigortzea”

*(Arrasateko Emakumeen Asanbladak “El Co-  
rreo Español egunkarian)*

## Nolatan sortu da Aretxagazeta eta zein da bere helburua eta funtzionamendua?

Beno Andarto kolekti-boaren ideia izan zen. Andarto kolektiboak Aretxabaletako kultur elkarte batzu biltzen ditu, Beinke, Alkar, Amilotx, Murruxixo eta Atsedendikiko taldea. Andartok Udalarri proposamena luzatu zion eta honek onartu; hortik sortu da Aretxagazeta. Udalak bazuen aldizkari bat sortzeko ideia baina beno, Andartoren ideia onartu zen eta elkarlanean aritu izan gara. Udala arduratu da, kolaboratzaileak biltzeaz, kazetaritza ikasleak gehien bat. Aldizkaria euskaraz da gehien bat zenbait iragarki izan ezik. Bere helburua Aretxabaletarrak beren herrian gertatzen denaz informatuta egotea eta euskara nolabait bultzatzea da.

Oraingoz esperientzia hartzen gabiltzanez, hiru-hilabetekaria da, datorren urtean beharbada hilero aterako dugu, baina hori ikusteko dago.


Guk aurrekontu bat geneukan eta aldizkaria gareztiagoa atera zaigunez, publizitatea sartu behar izan dugu; dena dela, aldizkaria defizitariora da eta Udala arduratzen da defizit hori ordaintzeaz.

Aretxagazetan lanean dihardugunok ez dugu ezer kobratzen eta astero astero egiten ditugu bilera aldizkarian landuko diren gaiak erabakitzeko.

*Inma Migel  
Aretxagazetako koordinatzailea*



# FAGOR




## TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN

ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

## Arrasate

u  
t  
o  
e  
s  
k  
o  
l  
a



Klase  
praktiko  
eta  
teorikoak

Olarte, 30  
79 89 89



## AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN



- gogorak
- porodunak
- bigunak
- kosmetikoak
- erabilpen iraunkorrekoak


Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa !

Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU

Zure betaurreko eta lentilan aseguruia dohainik

Kontzeziño kalea, 6  
Tfnoa: 79 25 98


ARRASATE



*Salterain*

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgariak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.  
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA


20.500 ARRASATE



# Jendearen arretarako orduak


## Goizetan

8,30etatik 14ak arte







## Arratsaldeetan

16,15etatik 17,30ak arte



## Larunbatetan

8,30etatik 13ak arte



Gipuzkoako Kutxaren bezero izan eta Arrasaten bizi bazara, orain luzaroago gauzkazu zeure zerbitzura.

Zeure herrian bertan.

Sukurtsalak ordutegi zabalago eta erosoagoan irekitzen ditugu-eta. Beste inora joan beharrik ez izateko. Eta denbora irabazteko.

Arrasaten, Kutxa zu gehiago eta hobeto zerbitzeko dago.

**Goizero, baita larunbatetan ere. Eta arratsaldero, astelehenetik ostegunera bitarte.**

- Garibaiko Sukurtsala.

**Goizero, astelehenetik ostiralera bitarte.**

- Zigarrolako Sukurtsala.
- Munareko Sukurtsala.
- San Andresko Sukurtsala.
- San Juango Sukurtsala.

# GK:

GIPUZKOAKO KUTXA  
CAJA DE GUIPUZCOA



**T x a n d a k a**

**Komunikabideak**

(...)

Edozein komunikabidetan norberaren buruari galderak egiten hasiz gero, gutxienez bi jarrera agertzen dira; Lehendabizikoaren arabera, komunikabide batek jendeak eskatzen duena eman beharko luke, entzule edo irakurlearen nahiak (edo eskariak) betetzen ahalegindu beharko luke, sarritan egin daitezkeenak baztertuz eta arrakasta dutenak aurrera botaz.

Bigarren jarreraren arabera, komunikabide batek jendearengan duen eragina kontutan hartu beharko luke. Gogoan izan beharko, egia dela jenderi nahi duena eskeini behar zaiola, baina era berean ahaztu gabe jendearen nahi hori aldakorra dela, eta nahia eta eskeintea beti lotuta daudela.

Jendea ohitzen bada mota bateko kontuak entzun eta irakurtzera, ohitura horiei helduko die, horruntz bideratuko ditu bere nahiak. Baina baliteke (eta horrela gertatzen da), eskeintzea zabalduz edo aldatuz, gogoak ere zabaldu eta aldatzea.

Aurreko hau gutxitan hartu da kontutan, bereziki arrazoi ekonomiko eta ideologikoak medio. Jendeari errezena ematen zaio, saltzen duena, besterik gabe.

Beste kontu bat izango litzateke zer diren komunikabide publikoak eta zer pribatuak.

Pribatuen auzia nahiko garbi dago, egitura ekonomikoek markatzen bait dute egin beharrekoa, eta hor kanpotik ezer gutxi dago esateko. Dirua jartzen duenak agin-



Juanjo San Migel\*

tzen du, eta egin genezakeen bakarra da, hori aukeratu edo beste batetara pasa.

Ustez publikoak diren komunikabideetan erizpideek agian ezberdinak beharko lukete.

Komunikabide publikoak diru publikoaz ordaintzen dira,

egoera batetan edo bestean hau edo hori izan arren momentuko gestorea. Hemen eztabaida luzea izan da, eta seguruenak luze jarraituko du eztabaida honek. Zer diren edo nolakoak beharko lukete publiko izan da diru publikoaz ordainduta-koak, baina momentuko gestorearen interesak, interes politikoak daudela, administrazio batzorde batek kontrolatzen duela bertan egiten dena, parlamentuan jarraipena egiten zaiela..., baina orain arte gutxitan bereiztu dira komunikabide publikoetan, agintean dauden interesak eta orokorragoak diren interesen artean dauden ezberdintasunak.

Tamalez, ordaintzen duenak agintzen du beti, baina publikoak diren arloetan, hain zabalak izanik ordaintzen dutenen taldea eta interesak, ohitu egin gara; publikoak agintarien menpe dagoen zerbait izan dadila onartzera.

Soluzio bideak ez dira errazak, eta bakoitzak berea izango du seguruenara, (...), baina publikoak denona den hori definitzeko erabiltzen dugu, eta denok zu eta ni gara, besteak beste.

(\* Euskadi Irratiko kazetaria)

**laburrak**

✓ **Drogomenpekotasun prebentziorako material didaktiko erosi-ko**

Sanitate, Kontsumo eta Gizarte-Ekintzetarako Batzordeak O.H.O.ko 5. mailatik (IEE) edo B.B.B.ko 2. maila arteko ikasleentzako zuzenduriko drogomenpekotasun prebentziorako material didaktikoa erosi du.

“Contra los traficantes” izeneko komikiko euskarazko 330 eta erdarazko 30 alek, gurasoentzako 66 gida, eta irakasleentzat beste 66k (dohainik) osatzen dute saila. Guztira, materiala 208.290 pta. kostatu zaio Udalari.

✓ **Gozogintza ikastaroa**

‘Famili eta Gizarte Hezkuntza Zentrua’k antolatu du, hilaren 6, 7, 13 eta 14 egunetarako gozogintza ikastaroa. Klaseak Mari Karmen Lizarralde emango ditu.

Hilaren 6an eta 7an hostorea izan zen ikastaroaren gaia. Hurrengo 13an eta 14ean, eta 3,30etatik aurrera, hainbat saltsa eta krema, beroak nahiz hotzak, nola prestatzea ikasiko dute. Zentru honetan ematen diren beste ekintza guztietan bezala, dohainezko umezaintza zerbitzua izango da.

Astelehen, asteazken eta ostiralero, bestalde, goizeko 10,30etatik 11,30orarte gimnasia klaseak emango dira.

Ikastaro hauetaz, edo zentruan egiten diren beste edozein aktibitatez interesatuta bazaude, gogoratu zentrua Santa Teresa kaleko 12.ean kokatuta dagoela, eta bere telefonoa 79 04 59 dela.

**Agirre  
Miota  
Gestoria**

Zerga deklarazioak  
Erdiko kale 28, 2.  
Tfnoa: 79 34 33

**Memesa**

**Arrasate**  
79 42 22

**Impi gozoak**

Gosariak eta gozokiak

Zarugalde, 8  
Tfnoa: 79 63 34



### Fagor-Fabrelec, batasunak indarra dakur

Fagor eta Fabrelec enpresen Kontseiluek hartutako akordioaren arabera, enpresa gipuzkoarra bizkaitarraren akzioez jabetuko da. Dena dela, akordioa definitiboa izateko oraindik bi enpresetako Organoen eta Madril eta Gasteizko Gobernuen onespena falta da.

Batuketa gauzatuz gero, kapitala guztiz estatala duen elektrogailuen enpresa bakarra izango da. 3.500 lanposturekin eta 55.000 pta.ko salmenten aurrikusiarekin urte honeta-



Fagor Fabrelec-en akzioez jabetuko da

rako, bere arloan Estatuko lider bihurtuko da, merkatuaren %30a kontrolatuz.

Negoziaketak bi enpresa, Ma-

drilgo eta Gasteizko Gobernuen artean burutzen ari dira azken hilabete hauetan, eta batuketa prozesua apurka apurka egingo da.

Batuketarekin batera, bestalde, Fabrelec Gizarte Segurantzza eta Haziendarekin duen 7.000 milioiko zorra bernegoziatuko da.

Basauriko enpresan White-Westinghouse, eta Arrasatekoan Fagor, Aspes eta Edesa motatako elektrogailuak egiten dira.

### Eskultura-sinposiuma- ri alternatiba bilatzen ari

Lau urtez Eskultura-sinposiuma izan ondoren, badirudi aurten ez dela egingo. Sinposiuma ziur asko desagertu arren, Udalak ekintza artistiko hau ordezkatzeko duen beste alternatiba bat bilatzen ari da.

Hau dela eta, herriko artista talde batek proiektu bat aurkeztuko dio Udalari. Honetan disziplina artistiko mota ezberdinek izango luteke kabi-da eta zentsu didaktikoa, eta ez kompetitiboa, izango luke. Besteak beste, grabatuak, pintura, murala, argazkiak, zeramika eta bideoaren munduko artistak egin dute proiektua. Esan behar, oraindik proiektu




Sinposiumak kontrako eritzi asko jaso ditu

bat besterik ez dela, datorren astean Udalak estudiantuko duena.

### Euria: 93 litro orduko

Hau da, m<sup>2</sup>ko, euriak bota zuen ur kopurua astelehenean arratsaldeko 6etatik asteartean arratsaldeko 3rak arte (errekorra 1987tik). Inguruko mendi guztietan edurra egin zuen, edurra kentzeko makinek lan egin behar izan zutelarik Udala eta Bedoña auzoetako baserrietarako bidea zabaltzeko. Auzo hauetan elurra 15 zm.ko lodiera edukitzera heldu zen.

Komunikabideei dagokienez, Gasteiz eta Zumarragarako autobusek ez zuten funtzionatu goiz osoan. Energia elektrikoa ere moztu zen hainbat tokitan eta uholde batzuk izan ziren; horra hor, Lenon taberna eta San Andreseko Fagorren hozkailu-plantan. Santa Ageda auzoan, bestalde, lubiziak izan ziren.



## VIGURI BIDEO KLUB

Apirilean gure bideo klubeko bazkide eginez gero,  
HIRU PELIKULA DOHAIN ikusi ahal izango duzu bai eta  
KOLORETAKO LAUTELEBISTAREN ZOZKETAN  
parte hartu ere

EGIN ZAITEZ BAZKIDE ETA  
TELEBISTA BAT ESKURATZEKO


AUKERA IZANGO DUZU

VIGURI, gertuago zeure zerbitzura.

Iturriotz, 33

Zerkaosteta, 24

Tfnoa: 79 85 65



Arrasate Pasealekua, 2, behea  
Tfnoa: 79 72 63



## Korrikarako laguntza onartuta

Datorren Apirilean 18 eta 19an Arrasateko Korrika pasatzen dela eta, zenbait ekintza antolatzeko dirulaguntza eskatuz Erdu Euskaltegiak (AEK) bidali duen idazkia ikusirik, Gobernu Batzordeak Euskara Batzordearen proposamena onartu du. Onartutako dirulaguntza honako hau da:

— Bi kilometro erostea, guztira 50.000 pta. ordainduta.

— Korrika girotzeko antolatuko diren ekintzetarako 96.000 pta.ko



Apirila 18an Korrikak Arrasate zeharkatuko du

dirulaguntza ematea, hau da, rockjaldirako ez beste ekintza guztiatarako dirulaguntza ematea.

Proposamena HB eta EAren aldeko botuekin onartu zen. PNVk eta EEK, berriz, ezetza eman zioten.

## Idazkari, kontuhartzaile eta diruzain postuak erregulatzeko plenoa

Gaur ostirala Pleno Berezia izango da Udal Idazkari, Kontuhartzaile eta Diruzain postuak erregulatzeko tramite legala burutzeko.

Idazkari posturako 14 funtzionario sartu dute Arrasate beraien lehenetasunen zerrendan; baina, oso atzeko postuetan sartu dutenez, oso aukera eskasa dute postua eskuratzeko. Gainera, kandidato denak kanpotarrak dira. Hau dena dela eta,

ziur asko, Jose M<sup>a</sup> Erañak idazkari, akzidentala, hots, ez ofiziala, orain arte bezala, izaten jarraituko du.

Kontuhartzaile posturako bakarrik bi lagun aurkeztu dira; eta hauek bat, orain postua betetzen duena, Iñaki Balzategi. Diruzain izateko Iñaki bera izan da aurkeztu den bakarra. Beste kandidatoak Arrasate aukeratzeko ez badu, Iñaki hurrengo bi urtetan, diruzain ofiziala eta interbentor akzidentala izango da.

Esan behar hau tramite hutsa besterik ez dela, Udalaren funtzionamendua aldatuko ez duena.

Bestalde, Xabier Zubizarreta hile honetan hasiko da alkatetzaz dedikazio osoaz arduratzen.

## laburrak

### ✓ AGAren eskakizuna atzera botata

Gazteria Batzordeak, Arrasate Gazte Asanbladak aurkeztutako idatzia aztertu ondoren, Ospitale Zaharreko hiru lokal erabiltzeko eskatutako baimenari ezetza eman dio, behintzat etxe honi ze erabilpen emango zaion finkatu arte.

Tunantes del Norte antzerki taldeak materiala erosteko eskatutako dirulaguntzari ere ezetza eman dio.

### ✓ Bideoak euskaraz

Azkenean zorioneko bideoak heldu dira merkatura. 1987an hamar filme euskaratu ziren, Eusko Jaurritzak Warner Home Video konpainiarekin hitzarmen bat egin ondoren. Halabaina, banaketa eta promozio eskasaren ondorioz, ia inork ez zuen aukera horren berririk izan. Iaz, ostera, El Aguila taldeari eman zitzaion bederatzi bideo euskaratzeko enkargua, "Azeri Grisa", "Gauguin", etab. tartean. Eusko Jaurritzak hartu du hemeretzi titulu hauen promozioaren ardura. Mondragoen, Arrasate Bideo Kluben eta Vigurin eska daitezke aipatu filmak.

### ✓ "Orain dela 30.000 urte Labeko Koba"

Izenburu honekin ostiralean, hilaren 7an eta 7etan Monterronen Labeko Kobari buruzko erakusketa inauguratuko da. Izenburu berberarekin liburuzka bat ere argiratu da.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea  
Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea  
A. Otalora doktorea  
A. Estomba doktorea  
M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higuera: Kirurgia, basektomia...

Lagun-Aro, Asisa, Previa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea .

Arrasate





Kanpainaren helburu bat gasolina aurreratzea da

## Kotxeen dohainezko araketa

Udalak, Eusko Jaurlaritzaren CADEM delakoaren laguntzaz, eta hilabete osorako, kotxeak araketze-ko dohaineko zerbitzua ezarri du.

Ikusketak EJE delako tailer zaharretan egingo dira, Errekalde kalean, hain zuzen. Eta honako ordutegi honekin: 10-14 eta 15,30-18,30 lane- gunetan, eta 10etik 2etara astebukae- ran. Kolak ebita- tzeko, kotxea era- man baino lehenago txanda eskatze-

ko txartela hartu behar da bertan. Araketa bakoitzak, gutxi gora behera, ordu erdi irauten duela kontutan harturik, hil osoan 300bat ibilgailu arakatuko dira. Arrasateko ibilgailuen parkea 8.000k osatzen dutela kontutan harturik, OMICen

asmotan kanpaina hau luzatzea dago.

Araketa behin eginda, kotxea kontzertatutako tailer batera era- man ezkerro, konponketaren pre- zioaren %30ko beherapena egiten dizute. Arrasaten oraingoz baka- rrik horrelako tailer bat dago: Meca, hain zuzen. OMIC gestioak egiten ari da tailer gehiagok ere, akordio honen barruan lan egin ahal izateko.

Besteak beste, ibilgailuaren honako atal hauek dira arakatzeko direnak: mailen kontrolak, zilindroen konpresioa, bateria, bana- tzailearen kontrola, gasolina eta karburadorearen bonbaren kontro- la, neumatikoak, argi fokuak, sus- pensioa eta direkzioa.

### JAIOTZAK

- Moral Sanz Virginia eta Alicia, Martxoaren 27.
- Gurasoak: Raquel eta Celia.
- Egaña Landa Elizabet, Martxoaren 29.
- Gurasoak: Jaun M<sup>a</sup> eta Mari Arrate.
- Buendía Gómez Rober, Martxoaren 29.
- Gurasoak: Macario eta Flo- rencia.
- Vallina Agiriano Xabier, Martxoaren 30.
- Gurasoak: J. Javier eta Agur- tzane.
- Uribarren Juantorena Amaia, Martxoaren 30.
- Gurasoak: Martín eta M<sup>a</sup>Concepción.
- García Beltrán de Gebara Ander, Martxoaren 30.
- Gurasoak: Erminio eta M<sup>a</sup>Nieves.



Hiru hilebetekaria da

## “Aretxagazeta”, herri prentsaren beste eredu bat

Martxoaren 21ean Aretxagazeta kaleratu zen. Guztira, informazio orokorreko 20 orrialdetan honako sail hauek biltzen dira: editoriala, Udaletxearen konposaketari buruz-

ko artikulua eta zinegotzietan eskatu- tako Udalari buruzko eritziak, gu- tunak, ihausteriak, Aitor Sarasuare- kin elkarrizketa, ekologia, astiema- tekoak, humorea, Kirol-Etxeari bu- ruzko erreportaia eta Kirolak. Edi- toriala eta artikulutxo bat izan ezik, elebidunak direnak, beste testu dena euskaraz dago. Ia orrialde guztietan iragarkiak daude, (gutxi gora behera aldizkaria osoaren %20a), euskaraz zein gaztelaniaz.

Nabaria da aldizkariaren helbu- ruetariko bat Udalaren funtziona- menduz jendeari informatzea da. Esan behar lehenengo alea honetan lortutako maila ona dela. Diseinua- ri dagokionez, hobeto finkatu behar da, orrialde batzuetan argazkiak eta testua gehiegi nahasten direlako (gure eritzia da, jakina). Beharbada ikusten dugun pegarik handiena maiztasunarena da. Alditasun ho- nekin izango duen eronkarik han- dienetariko bat informazioaren gaurkotasunarena izango da.

BIZKAI JATETXEA

Bizkai jatetxea ireki berria!

Udala Auzoa  
ARRASATE Tfnoa: 79 22 15

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA

IRAKASLEAREKIN

Garibal 3, 79 22 96 ARRASATE





Hona hemen monitorea eta kursillistak

Honako hauek Langabetuei zuzendutako ikastaro baten partaideak dituzue, eta astelehenean bisitaxo bat egin ziguten, Arrasate Press "in situ" nola egiten dugun jakin nahi zuten eta. Ez zioten pega bat ere ez jarri argazkia ateratzeari, ez beste batzuk bezala. Gure bisitarien zerrenda poliki poliki luzatzen doa.


**Ikastolako ikasleak berriz sarituak suertatu dira idazlan txapelketa batean.** Euskarazaintzak, Gipuzkoa mailan antolatutako ipuin lehiaketaren lehenengo fasetik O.H.O.ko 5. mailako B ereduko (elebidunak) 8 ikaslek bigarren fasera pasatu dira. Hona hemen izenak: Arantza Gonzalez, Jon Velasco, David Cus-

Donosuan egun ederra pasatu zuten



todio, Elisabeth Matilla, Ainara Arribas, Maria Dapena, Leire Ortuoste eta Igor Ramos.

Martxoaren 22an Donostiara joan ziren beste idazlan bat egitera. Hemen herrialdeko beste herrietako umeekin batera bazkaldu zuten "Urbia" jatetxean. Honetaz gain, sari gisa, 500 pta. eta liburu batzuk eman zizkioten. Arratsaldean Aquariuma bisitatu zuten eta, paseoan zebiltzala, Toshack ikusi zuten, autografo bana eskatu ziotelarik.



LASO ARREGI

Antonio Prior eta Isabel Gómez arrasatearak Martxoaren 11an, eguerdiko letan ezkondu ziren Arantzazun. Zorionak!

## izen propioak

**Juan Mari Otaegi**, 45, bergarra, Lan Kide Aurrezkiaren Kontseilu Zuzentzaileko lehendakari berria, Alfonso Gorroñogoitia ordezkaturik. Donostiako ESTEn Enpresa Zientzian lizentziatua, 1969an talde kooperatiboan sartu zen, non Fagor taldeko idazkari nagusia bait zen. Halaber, Bergarako Udaleko zinegotzia eta Deba Garaiko Mankomunitateko lehendakaria izana da.

**Juan Txillida**, 33, artista donostiarra, Txillida handiaren loba. Apirilaren 15era arte hainbat pintura erakusten ditu Galeria 44ean. Autodidakta izanik, dagoeneko zazpi erakusketa egin ditu bakarka eta berderatzi taldetan.


**Jesus Larrañaga**, 62, kooperatibista arrasatearra, EAko Batzorde Eragilerako aukeratu dute partidu honen 2. Kongresuan. Ekonomia arloko arduraduna izango da. Jesus ingeniari industrialia da eta talde kooperatiboko fundatzailetarikoa. Orain Fagor taldeko Eragiketa Internazionalerako zuzendaria da.

**Eneko Urrizalki**, 17, arrasatearra, ONCEk antolatutako itsuei buruzko margo-lehiaketan 30.000 pta.koa saria irabazi du. Eneko Goi Batxilergoa (1. kurtoa) ikasten ari da Eskola Politeknikoan.

**Angel Larrañaga**, 42, Bilbon egin berri den 2. Kongresuan EAko Batzorde Eragilean sartu den bigarren mondragoetarra, Finantzen ardurak eramateko, hain zuzen. Angelek Otsailaren amaieran utzi zuen Roneoko gerentzia, bertan bi urte eman ondoren.

**HIRE**

Liburu eta oparidenda  
iturriotz, 4 - Tfnoa 79 14 84



**UDALA**

Auto-eskola

Minusbaliatuentzako  
klase bereziak

Otalora, 25 Tfnoa: 79 88 56



# Lau urte eta gero Ertzantza Arrasaten

Ertzantzak 1984ean Arrasaten bere lehen komisaldegia jarri zuen. Lehenago Gasteiz, Donostia eta Bilbon eraikuntza ofizialak babesteko hedatu ziren, baina Arrasatekoa izan zen garai hartan egin zen plan pilotu baten arabera, herri batetan jarri zen lehen komisaldegia. Dagoeneko arrasatearrok ohitu gara beren presentziara. Gaurko honetan beren lana zein den, beraiek beren burua Arrasaten nola dakusaten eta Arrasatearrek beraiei buruz zein eritzi duten jakin nahi izan dugu.



Juan José Lakunza tolosarra, sargento burua.

## Prebentzio lana

Gaur egun, Arrasateko Ertzantzaren komisaldegian 130 ertzain ari dira lanean, emakumeak 12 direlarik. Momentu honetan Arrasateri dagozkion baino ertzain gehiago omen dago, hau despliege berria denbora gutxi barru burutuko dela eta bertan ertzain batzu beren praktikak egiten ari direlako gertatzen omen da. Berauetatik %20a gutxi gora behera Leintz bailara ingurukoa da eta %25a, gutxi gora behera, euskalduna, Euskal Herrian ematen den batz bestekoaren parekoa, bertako sargentu buruak adierazi digunez.

Ertzainek nagusiki lau lan desberdin burutzen dutela esan daiteke, prebentzio lanak, delittoa dagoenean aktuatu, trafikoa lanak eta gizarte laguntzaile antzeko lanak,

hain zuzen ere.

Prebentzio lana "Korriken" gain dago. "Korrika" hitza beraiek kalean patruilatzen ari diren bikoteak definitzeko erabiltzen dute, eta berauen lana omen da Ertzantzaren lanik garrantzitsuena. Arrasaten

*sentsazio hori izatea, baina gauze beren ziurtasunerako bikotea joatea beharrezkoa da eta egunez, ni neu banaka joatearen aldekoa banaiz ere, sindikatuek eta, presio egiten dute, eta sarritan bi joan ohi dira, leku batzutan banatzen badira ere".*

Trafiko zereginik ohizkoenak, trafikoa bideratu, istripuetan atestatuak egin eta alkoholemia frogak burutzea dira. Iaz Arrasateko Ertzantzak 1.063 alkoholemi frogak egin zituen eta berauetatik 75ek eman zuten positibo, kopuru nahiko baxua bertako ertzain baten hitzetan "Normalean, positibo ematen duen jende kopurua urria izateak jendeak uste duena baino gutxiago edaten duela frogatzen du."

Delituei dagokienez, Arrasate ez omen da delinkuentzia handiko herria, bertako sagentuaren hitzetan "trasbase bat suertatu da Ertzantza dagoen herrietatik ez dagoen herrietara; dena den, arazo hau ez da konponduko gizarteko beste arazo batzu konpontzen ez diren bitartean, langabezia esaterako".

Beraiek burutzen dituzten lanetatik desatseginena antidisturbio-lana dela adierazi digute zalan-tzarik gabe, baina trafikoa barrikada baten eraginez eteten baldin bada, beraiek errepidea libre uzteko beharra dutela. Puntu honetan bat etorri dira hitz egiteko aukera izan dugun ertzain guztiak eta, oro har, guztiak

---

**Arrasaten inon baino okerrago tratatzen gaituzte  
Aretxabaletara joanez gero,  
jendeak beste era batetan tratatzen gaitu.**

---

normalean lau bikote aritzen da kalean zehar bueltaka eta honez gain, kotxe bat berauei nolabaiteko kobertura emateko asmoz. Kalean ertzainen presentzia gehiegizkoa ez ote den galdetu diogu bertako sargentuari, "bai, baliteke agian

oso desatsegina den eginkizuna izan arren, eginbeharrekoa dela adierazi digute. Lan honetan komisaldegian dauden ertzain guztiak hartu behar dute parte, bai trafikoa aritzen direnak, bai patruilatzen, etab.

**"Gero eta onartuagoak gaude"**  
Arrasaten beren burua nola senti-



tzen duten eta jendeak beraiekiko zein jarrera duen jakin nahi izan dugu. Beren ustez, jendeak gero eta hobeto tratatzen ditu, bertako sargentuaren hitzetan "jendeak zer garen eta egiten dugun lana ezagutzen duen heinean hobeto tratatzen gaitu, ezagutzen gaituen neurrian guganako erretxazoa gutxitzen doa". Hala ere, Arrasaten gazte jendeak beraiek errefusatzeko dituela adierazi digu, ez zuzenean baina bai beraiekiko indiferentzia azalduz. Honek kallean lan egin behar duten ertzainen lana gogorra egiten duela gaineratu dute, gaitzespen hori somatzen bait dute. Datu aipagarria dugu hau, kontutan izanik Arrasate izan dela Ertzantza komisaldegia izan duen lehen herria. Arrigorriagako ertzain baten ustez "Arrasaten, zalantzarik gabe, inon baino okerrago tratatzen gaituzte, Aretxabaletara joanez gero, jendeak beste era batetan tratatzen gaitu, ez digu inolako trabarik jartzen. Dena den, Bizkaian jendeak hobeto tratatzen gaitu, Gipuzkoarrak radikalagoak dira, burugorragoak, egoera hobetu bada ere." Santurtziko

## Eritzi kontrajarriak arrasatearren artean

Arrasatearrek gai honen inguruan zein eritzi duten jakin nahian arrasatear batzuri bere eritzia eskatu diegu eta jaso ditu-



Arrasaten Ertzainek Munizipalek baino dotazio hobea daukate

gun erantzunak gusto eta eritzi guztiak asetzekoak izan dira.

Ertzainek gazteek errefusatzeko dituztela esaten dutenez, taberna batetara jo dugu eta bertan zeuden

dutelako egin. Ni ez naiz seguruago edo inseguruago sentitzen beraiek hemen daudelako." Aldiz Joxek, eritzi guztiz kontrakoa zuen "Nik ondo ikusten ditut, gutxienean bertakoak dira, eta gainera beren

lana norbaitek egin behar du, lapurrak eta, norbaitek harrapatu behar ditu". Albertok, berriz "Egia esan niri berdin dit ertzantza Arrasaten egotea edo ez egotea, gasolina gasatatu eta bueltak emateaz gain ezer ez dutela egiten uste bait dut, beste poliziekin duten desberdintasun bakarra trajearen kolorea da." Eta Karmenek "Lan egiten dutela uste dut, behintzat trafiko handia dagoen orduetan hor aritzen dira berau bideratu nahian"

Beraz, ezin esan daiteke arrasatearrok gai honen inguruan eritzi berekoak garenik. Beste gai ugariaren inguruan gertatzen den bezalaxe, honetan ere, desadostasuna da nagusi, herritar batzu beren aldeko eritzia azaltzen dutelarik eta beste batzu kontrakoa.

## "Harrigarria da batzuk kalean nola tratatzen gaituzten ikusirik, komisaldegira mesede eske etortzen direnean zein desberdin tratatzen gaituzten ikustea"

beste baten hitzetan "Harrigarria da jendeak kalean nola tratatzen gaituen ikusirik, komisaldegira mesede eske etortzen denean nola tratatzen gaituen ikustea. Hona etortzen den jendeak errespetoz tratatzen gaitu eta hemen egonik, ezin soma dezakezu kanpoko egoera".

gazte batzuri eritzia eskatu. Amariak adibidez, "Egia esan ni ez nintzen batere poztu ertzainak zetoze jakin nuenean, besteak ezagutu ondoren eta joan zirenean geneukan lasaitasuna izanda!; polizia guztiak antzekoak direlako eta ondorengo beren ekintzek nire eritzia baieztatu besterik ez



**URONDO elektrizitatea.**

Nafarroako etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- \* Elektrogaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak
- \* Proiektuak

**PRONOVIAS DOCHY**



**ezkontzak**

Independencia 20  
GASTEIZ



# Lagunak Oro Lagun Aron



**Lagun Aro Aseguruetan** gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailera hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

**Lagun Aron** poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

**Lagun Aro** Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzeko duen Europako Kooperatiba Aseguruaren Elkarteko partaidea bezala.

**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkia Taldekoa




# Benito Lertxundi:

## “Ni Elvis Presleyren kantuekin hasi nintzen”

Etxeko gauzekiko konplexuak behingoz aldendu eta aitor dezagun Benito dela euskal musikan idolo izatera gehien hurbildu den kantaria.

Edertasunaren ezaugarriaz egin duen lan oparoak zale ugari eta porrokatuak eman dizkio.

Eta jasan izan dituen eraso gogorrek ere ez dute baieztapen hori egiaztatu besterik egiten.



Oriotar hau Zuberoaz maitemundurik dago

**Z**enbaitentzat, agian, Benito ez da iritsi bere ahalmenak edo garai batean erakutsi zuen indarrak eskatzen zuen mailara. “Bizitzaren edozein arlotan, garrantzizkoa ez da ailegatzea, bidean egotea baizik”, esango digu berak. Dena den, laster 25 urte kantuan beteko dituen kantari honek, euskal kanta berriaren oinarri batzuk finkatu ditu, eta zenbaitetan gailurra jo ere bai.

Ia lau ordutako elkarrizketa luzean, eta gai konkretuetatik abstraktueta-  
ra etengabe joz, bere bizitzako zenbait pasadizu, bere pentsamoldea eta hinbat arazori buruzko jarrerak, eta bere kantagintza-  
ren ezaugarriak eta zergatiak agertu dizkigu Benitok. Orioko bere etxean solastu gara, mendebaldeko haizeak gogor erasotzen zuen leiho baten ondoan.

Ni Orion jaio nintzen, eta

*hemen eman nuen neure ume denbora, goiko kale inguru honetan, pelotan, borrokan eta jolasean. Baina, garai hartako oroimen batek adierazten du ordurako banuela nik musikarekin inplikazioa. Bazen hemen pertsona bat eguerdioro elizara joaten zena, organoa jotzera. Niretzat, Orio bezalako herrixka batek tenplo handi bat edukitzeak eta han organo bat egoteak bazuen magia antzeko zerbait. Eta organo horrek ematen zituen*

*nean bere errejistrorik sakonenak, ni inpresionatu egiten ninduen. Orduan, bazkalondoan eta eskolara joan au-*


*rretik, ia egunero joaten nintzen elizara, organoa entzutera. Baina hori sekretupean egiten nuen, banuen inpresioa hori eme xamarra ez ote zen, mutiko bati ez zegokion zaletasuna. Sensiblekera, alegia.*

Benitoren sentsibilitatea, umetik datorkiona. Zuberoarekiko lilura ia mistikoa edo gauzarik itxuraz arruntzarekin sekulako flash-ak eragiten dizkiona. Emanaldietan izaten dituen “trantze” moduko horien arrazoia eta, aldi berean, edertasuna sortzeko ahalmena ematen diona.

Geroago, elizako koroan, otxotetan eta nenbilela, organujole hark laud bat eman zidan. Nik ez nekien hura zer zen, baina nire kasa afinatu eta hasi nintzen akorde batzuk ikasten. Eta horri itxura pixka bat ematen hasi nintzaionean –ni orduan erlojugintzan nenbilen– erosi nuen nire lehen kitarra, elektrikoa, jazz-ean erabiltzen diren borobil horietakoa, anplifikadore koxkor batekin. Hura erlojutekira ekarri eta han hasi nintzen nire lehen kanta lantzen, Elvis Presley, Cliff Richard, Shadows etab. arren kantak, “Llorando en la capilla” ren lekuan “Negarrez aldare aurrean” jarri eta handik sortzen nuen letra osoa. Hala ere, nik

**“Ez nuen euskaraz kantatzen nolabaiteko kontzientzia nuelako, hori normalena zelako baizik, berez zetorkidana”**





Hona hemen, Benito Arrsate Press leiruten

orduan ez nuen euskaraz kantatzen nolabaiteko kontzientzia nuelako, hori normalena zelako baizik, berez zetorkidana. Edo agian, ingelesa niretzat arrotza izateak ingelesarengana hurbiltzen zuelako, ez dakit...

## Ez dok amairu

Laboak esan zidan hemengo ikasle batzuk, Bartzelonan ikasten ari zirenak eta hango "nova cançó" ezagutzen zutenak, hemen horrelako zerbait egin nahian zebiltzala eta ea joango nintzen. Orduan ezagutu nituen Laboa, Lurdes Iriondo, Julen Lekuona, Nemesio Etxaniz, Arza Joxanton... Eta haien bitartez Rainmon, Pi de

la Serra eta barren musika eta asmoak. Niretzat guzti hura arrotzaren eta kantari bezala nahiago nituen Elvis eta horiek, baina letrak zuten eduki soziala nireganatuz joan nintzen, poliki-poliki. Gainera, taldean hasi ginen Bob Dylan, Pete Seeger, Woody Guthrie eta horien musika entzuten. Sasoi hartan, baita ere, egin nuen topo lehen aldiz Jorge Oteizarekin, "Ez dok amairu" ren emaldiak hasi berritan. Oriotarra nintzela eta etorri zitzaidan Oteiza, eta taldearekin harremanetan jarri zen. Kontua da elementu guzti horiekin mundu berri bat deskubritu genuela, eta gure planteamendua finkatuz joan zen.

Hasieran, eta fenomeno soziologiko guztiakin gertatzen den bezala, jarrera oso aldekoak eta oso kontrakoak izan genituen.

Aro mingotsagoak geroago etorri ziren. Hasiera hartan gu aurrerakoiak ginen, progresistak, gure aldekoentzat. Eta besteentzat, berriz, ginen progresista bel-durgarriak, deabruarekin paktua egiten genuenak... Beti erabiltzen diren konzeptu horietan dena gezurra izaten bada ere, gu harro sentitzen ginen eskubi erreakzionario horren jarreraz.

Baina urte batzuren poderioz, berri izate hori galdu zenean, aldekoen multzotik sortu zen aurkako erreakzioa, eta lehen progresista izandakoak, orduan atzerakoiak omen ginen, burgesak. Oraindik "Baga, biga..." ematen ari ginela, leporatzen ziguten profesionalak ginela, herriaren kontura bizi nahi genuen xurgatzaileak... Eta orduan dator, hori dela eta, "Ez dok amairu" ren usteltzea, korronte hori hasten da pipia bezala taldearen barrua jaten eta azkenik taldea puskatu egiten da, 72.aren inguruan.

## Zuberoa

"Baga, biga..." Bretainian ematera joan ginenean, hausnartu nuen lehen aldiz, hango musikak bazuela gurearekin antzik, eta hasi nintzen kantutegi zaharrak aztertzen. Hor ireki zen niretzat mundu berri bat, nire kantagintzaren aro berri bat. Orduan deskubritu nuen Zuberoa...

Eta hor abiatzen da Benito, oroitzen den bama, bere bizitza eta lana sakonki markatu zuten gertakizunen bila. Orhi mendira igo zenekoa, edo nola berak berrerakutsi zien zubero-tarrei Atharratzeko kantua, ahantzia bait zeukaten. Edo nola aurkitu zuen aspaldian agortua zegoen Salaberryren kantutegia -"hura niretzat biblia zen!"-, edo...

Kontuak kontu, Zuberoako musikan sakonduz, mundu zeltarekiko loturak gero eta sendoagoak agertu zitzaizkion. Euskal doinu zaharrei aintzinako musikatrenak ezarri gero -zarrabetea, kornamusa, txirula...-, nekez bereiz zitezkeen Irlandako musikatik. "Eta hori ez da orain jaso dugun influentziagatik, baizik eta gure musika eta zelta, neurri handi

**"Niretzat, "Nova canço" arrotza zen eta nahiago nuen Elvis; baina, letren eduki soziala, nireganatuz joan nintzen"**

## ANDERE

### BAINU ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

- \* Sukaldeko altzariak neurritan egin eta ezarri
- \* Lehen mailako elektra tresnak sukaldearekiko itxuratuak eta neurritan ezartzekoak
- \* Egituraketa proiektuak konpromesurik gabe
- \* Proventzal erako zurezko altzarietan trebatual gara

ERAKUSKETA: Erdiko kale 52, Tfnoa: 79 83 77 ARRASATE

## TALLERES AGA, S.A

Zerreilgintza aratzeko gaiak

Legarre pabiloi industrialia  
Tfnoa: 79 02 22  
ARRASATE



batean, enbor berekoak direlako". Bide horri ekin zion indarrez, eta baita gailurra jo ere. Niretzat behintzat, bi diska bikoitzetan daude Benitoren unerik ederrenak, euskal musikarentzat garrantzitsuenak. Hurrengo diskan —udazkenean kaleratuko denean— berriro tradizioa joko duenaren iragarpena, horregatik gusto handiz hartu dut.

## Francoren heriotza eta poxpoluak

Hogeitamar urtetik gora duenak gogoratuko du Francoren heriotzaren aurreko eta ondoko hilabetetako egoera. Itxaropena eta beldura nahasten zireneko garai hartan, kantaldiak mitin bilakatu ziren eta, poxpolu artean, uhin bortitz batek astindu zituen kantariak. Benito berak arazo asko izan zuen orduan, eta saminez mintzo da oraindik ordukoaz.

*"Oso gaizki eraman nuen aldi hura. Manipulazio handia egon zen eta ni ez nintzen jokoan sartu. Horregatik, kantari gehienek sekulako exitoa zuten bitartean, nik kristoren bronkak jasotzen nituen, txaloak besteentzat ziren eta niretzat txistuak. Eta kantari asko sortu zen orduan, kanta txarrak eginez, bateren batek ez zekien kitarra afinatzen ere, baina haiei txalo eta niri txistu.*

*Gehienak desagertu dira, noski, halaberharrez. Baina nik asko sufritu nuen, alde batetik gobernadoreekin borrokan eta gero nire*


*rea izan behar zuen publikoaren* **"Kaliforniara joateko birritan dei egin didate. Eta ez naiz joan Bermeon eta Oñatin kantatu behar nuelako"**

*nipulazio hura, kanta kaxkar haiek... Eta nolabaiteko atraktiboa zeukan kontra egiteak, bihurri izateak. Hortik indarra atera nuen."*

• Koerentzia beti. Koiunturaren

aurrean ez makurtzean datzana, zenbaitek burugogorkeria kontsidera dezakeena. Benitok egin duen bidean ez dago etenik, ez eta balantzakako pausurik. Presioei edo tentazioei amore eman gabe bereari jarraitu dio.

*Duela gutxi Kaliforniara joateko dei egin didate, bi aldiz. Eta ez naiz joan, batean Bermeon kantatu behar nuelako eta bestean Oñatin. Eta norbaitek esan dezake*



Benito Lertxundi duela 25 urte hasi zen kantatzen

*ea nola den hori posible. Baina niretzat atseginagoa da Oñatin kantatzea Kalifornian baino. Ni, Oñatira joan, "gabon" esan eta*

*kantuan has ninteke. Hori da naturala, ekologikoa. Kalifornian, berriz, gauzarik ximpleena ere esplikatu egin behar harko nukeen, guztia itzuli, argi*

*uu, haien ikerkuntzak jasan. Hori ia antropologikoa litzateke. Nik behar dudana energia nire inguru naturaletik jasotzen dut."*

Horrelako planteamendutan

somaten dut Benitoren bizi den artisaua. Musika bete-betean industria bilakatu den bitartean, kantarien emaitzak eta bizitzak negozioaren mende jarriz, Benitok artisauen posturan jarraitzen du lanean, produktua bere eskuekin landuz eta berak zuzenean salduz, industriaren argudioei —ekoizpen handiagoa, sare zabala— goak, diru gehiago— artisauarenak nagusituz: gustoz egindako lana,

bezero ezagunak eta diru juxtua.

*"Musika kontsumokopitxi preziatu bihurtu da. "Zenbat" bilakatu da helburu nagusia: zenbat diska, zenbat emanaldi, zenbat diru... Niretzat, berriz, "nola" k du garrantzia, gauzak nola egiten diren, zenbat egiten den baino gehiago. Nolatasuna galdu egin dugu. Adibidez, askotan deitu izan didate herriko festatan plazan kantatzeko, denentzat izan dadin arrazoituz. Eta nik beti erantzuten dut ezetz, nik ez dudala denentzat kantatu nahi, ez diodala inori ezer inposatu nahi."*

Mikel Irizar

## J. Larrañaga

### OPTIKA

**Betzuringorako lentilak / Gortasunerako aparailuak  
Industriarako babes-betaurrekoak / Audiometriak  
Begi-errehabilitazioa**

Juan Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 29 95 ARRASATE



**HAURTOKO A  
RRANBURU**

**Arrasate Pasealekua, 4  
79 14 90 ARRASATE**




# Gamei, S.A.

**MARRUSKADURAZKO PRENTSAK**  
**PRENTSA ESZENTRIKOAK**  
**PRENTSA HIDRAULIKOAK**  
**TORLOJODUN ERAUNSPENEZKO**  
**PRENTSA**  
**TOTXOTARAKO ZIZALIAK**  
**DEFORMAZIO MAKINA BEREZIAK**

Nafarroa Etorbidea, 31 Tfnoa 79 55 00 Telefax 79 03 97  
ARRASATE

**arrasate**  
**press**  
**astero zuekin**



## ZENBAKI

Gaiak: Kontabilitatea  
Fiskalitatea  
Lana  
Zuzenbidea  
Juridikoa  
Finantzaketa  
Aseguruak

BASABE INDUSTRIALDEA  
ARETXABALETA (Gipuzkoa)  
Tfnoa: 79 88 75  
79 75 99

apainketak

  
*Zubirareta*  
GALERIA 44

erakusketak

o  
p  
a  
r  
i  
a  
k

## Mondragonesa Grafikagintza

paperdenda - mahaigaineko tresnak

Olarte 10, Tfnoa 79 12 63

# Obea

**Ate automatikoen**  
**ezarpena**  
**Konponketak**  
**Berriztapenak**

**Galdetu prezioak**

**IGONGAILUEN**  
**MANTENIMENDUA**

Jose Luis Iñarra, 22-behea  
Tfnoa: 79 12 08

## Gorka

**ILEAPAINDEGI**  
**MIXTOA**

Bainetxe kalea, 10-behea. Tfnoak: 799680 eta 796327  
ARETXABALETA



# Kabia

## Haltzariak


Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE



# J.A. Irigarai: Neretzat "Txepetx" ekiko adiskidantza gauza preziatua da oso

Honez gero ezaguna izango zaizuenez, datorren asteartean hasita "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren aurkezpenari emango zaio hasiera Monterron Kultur Etxean.

Egileari eta ikastaroari buruz hainbat zertzelada eskaini asmoz, hirugarren saioan parte hartuko duen Jose Angel Irigarai idazle nafarrekin izandako elkarrizketa dakarkizuegu orriotara.



J. A. Irigarai

— Hasteko, egin ezazu Txepetx-en aurkezpena ondo ezagutzen duzu eta

— Jose M<sup>a</sup> Sanchez Carrión "Txepetx" kalitate bereziko gizaki aparta da; maila guztietan. Besteak beste, aipagarriak dira haren jakinahi eta jakinduria, haren biziaren aurreko jarrera jator eta eraginkorra.

Neretzat harekiko adiskidantza gauza preziatua da oso.

Hizkuntza arloan lan ezinago baliotsu, bizigarri eta eraginkorrak egin ditu —duen giza maila eta jarreraren islada gisa—, euskara/euskaldunentzat eta beste hizkuntz/hiztun taldeentzat zinez bizigarri eta funtsezkoak direnak. Eta hori berarentzat ere arazo horiek funtsezkoak direlako da, berari ere dagozkionak; berarentzat bizi adierazpen bakoitzaren eta bizitza osoaren baldintzak, eskubideak eta jomugak bat datozelako.

— Labur izan beharko badu ere, zeintzuk dira zure ustez "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren ardatz nagusiak?

— "Un futuro para nuestro pasado" lana hizkuntzen egoerari —berezi-ki euskararenari— eskeinitako emaitza mardula da; ene aburuz, euskararen egoeraz egin den azterketarik sakonen eta osoena. Halere, hori gutti balitz, askoz ere gehiago bada: mintzabide berri baten hastapen eta jokabideak aztertzen eta finkatzen saiatzen dena; euskarak —orobat beste menperatutako hizkuntzek— bere mendetako kinka larria gainditzeko ezinbestean behar

dituen ideia eta jomugak eskainiz. Eta dena ulerterrazki eta gisa eraginkor batean.

— Zer aurkituko du antolatutako hiru saioetan Monterroira hurbilduko den euskaltzaleak?

— Funtsean hau: hizkuntz eta biziaren aldeko mintzabidearen adierazpenak. Txepetx-en lanean —batez ere, azkenekoan— eta beste zenbaitzuren lan eta ekin-tzetan azaltzen eta manitzen ari direnak; hemen eta munduan zehar. Hortarako, lehenengo egunean, Txepetx-en aipatu azken lanaren mamia zertan datzan azalduko da; eta hori, interesgarria ez ezik, beharrezkoa deritzat. Bigarren egunean euskara batua eta euskalkien arteko orekaz mintzatu da, ez gehiago erabiliz bata ala besteak, bata eta besteak baizik, bakoitzari dagozkion bizi-maila, eremuak eta duintasuna emanez; eta hori, beharrezkoa ez ezik, oso premiazkoa deritzat. Azkenik, hirugarren egunean, liburuaren mamia obra-

tzerakoan erabilitako joerak eta pilaturiko esperientziak azalduko dira, bai eta jendea denen beharra duen mintzabide hortan abiarazten saiatuko ere, praktikatik teoriko mailaraino; eta hori ezinbestezkoa deritzat.

— Zuk zeuk zer espero duzu joango direnen aldetik?

— Nik euskararen egoera oso kinka larrian dakusat; herriarenaren arauera. Ez dut uste, zoritxarrez, zinezko nahikari haundirik —are

gutiago gaitasunik— dagoenik gure herria, hizkuntza bame, egiazki eta propioki askabidean emateko. Erakunde politikoetan azaltzen eta nabarmentzen diren gaitasunik eza eta erreku-perazioena ez dira oraingoak. Kimu berriak, indar berritzaileak sortu beharko dira, edo-ta galtzeke beti izan direnak beste gisa gabea egokitu beharko, beste dinamikan mamiturik. Hizkuntzari dago-kion arloan ere jokabide berriak asmatu edo-ta egokitu beharko dira. Mintzaldietan azalduko den mintzabide berriak parada ematen digu haiek ezagutzeko; nahitanehiezkook direlakoan

**ez dut uste nahikari handirik dagoenik gure herria askabidean emateko**


nago, bai eta deus aurreratze-kotan eta garatze-kotan hortik izanen delakoan ere.

Bianan horrek

denen parte hartzea eskatzen du, mintzabidea denok mamitu eta obratu behar bait dugu. Gainerako guztia ahuntzaren gauerdiko ametsa da. Nik mintzaldi sail honetan hau dena ulertzea eta baitaratzea espero dut. Dena den, esperientzia interesgarria deritzat —tesiarene inguruan egiten den lehena—, gure herria ibilbide berriren baina abiatzen has dadin. Auzia denen esku dago, ororena da.

Julen Arejolaleiba





Enrike, Zahor taldeko kidea

## Enrike Alonso, bikain Euskadiko Itzulian

Profesional bezala bere ehen denboraldi osoaren hasiera oso ona izaten ari da Enrike Alonsorentzat. Iaz maila honetan, Burgos, Galiza eta Riojako birak korritu zituen. Euskadikoa da, beraz, orain arte izan duen erronkarik handiena; eta bere erantzuna, optimistena harritzeko modukoa.

Lehenengo hiru etapak bakarrik kontutan harturik (erredakzioa ixten denean laugarrena oraindik ez zen bukatuko) izan duen aktuazioa bikainatzat jo daiteke: lehendabiziko etapan 13. postuan zeharkatu zuen helmuga; bigarrenean, elurragatik murriztu egin zenean, 4. postuan sartu zen; sailkapenaren 5. posturaino igoz. Eta hirugarrenean, 22.a heldu zen, sailkapenaren 15. posturaino jeitsiz.

Aktuazio honekin hasi dira hartaz fijatzen. Diario Vascon honako komentario hau agertu zen ostegunean: "Enrike Alonso, Zahor taldeko arrasatearra, harrituta utzi gaitu. Tendinitisak apur bat jota egon arren, hoberen artean dabil".




Mendizaleak zoratuta ote?

## Gavarnira Negu teknikak lantzera


Gaur, hilak 7, talde bat irtengo da Gavarnirantz (Frantzia) Besaidek antolatutako ikastaroa burutzeko. Aldez aurretik joan zen astera-ko pentsatuta bazegoen ere, azkenean aplazatu egin da; eta, batzuk honetan ezin zutela eta, taldea bi zatitan banatu da. Guztira, monitoreez gain, dozena bat lagunek hartuko dute parte ikastaroan.

Kursiloan pioleta eta kramponekin ibiltzea eta kordadak egitea irakatsiko da. Asteazkenean gorapiloak nola egiten diren ikasteko, batez ere, klase teoriko batzuk izan ziren.

Lehenengo talde hau Raku Sagasta eta Andoni Villaren ardurapean dago. Teknika hauek lantzeko eguraldiak laguntzen ez badu, Gavarnin bertan, dagoen eski-estazioan askiatzeko aukera izango dute



## KONTRATAK OROKORREAN



Foruen Enparantza 1, Tfnoa: 79 21 61 Fax: 796432 ARRASATE



## podiuma

### Arantzazu Zubia, gimnasta

Arantzazu Ikastolan hasi zen gimnasia praktikatzen Lupe Oteizarekin, 9 edo 10 urte zituela. Hemen-dik Kiroldegira pasatu zen. Bizka-rrean lesio bat dela eta, 17 urte zitue-la konpetizioa utzi behar izan zuen. Lehiaketetan ibilitako garaia ez zen izan alperrik galdutako garaia: 1981ean Euskadiko txapelduna, eta 83an bigarren postua lortu zuen.

Orain entrenadore titulua dauka eta Rakel Kintanarekin batera, "Gimka-Gazela" eskola eramaten du. Rakelek asteazken eta ostiraletan gimnasia generikoa irakasten du, eta berak larunbatetan ritmika. Eskola honetan hutsetik hasi dira, "oraindik ibiltzen ikasten dabilta. Gero flexi-bilitatea landuko dugu. Oso poliki joan behar da, bestela lesioak izateko arriskua dago". Klaseak Kirolde-gian ematen dira, eta 4 urtetatik 12etarako 30bat neska joaten dira. Modalitate hau badirudi mutilentza-ko nahiko itxita dagoela, konpeti-zioan parte hartzea debekatuta dutelarik, "ni ez nago ados honekin. Esaten dute ez dutela estilorik, baina balletean oso onak badira, ez dakit ritmikarako zergatik ez diren izan behar". Lehiaketa mailan, bestalde, gimnasia ritmika oso kirol gogorra da, "edozein detaile tontogatik jue-zak puntuak ken diezazkizuke".

Gimnasia erritmikoarekin, Aran-tzazuren esanetan, "gorputzaren do-meinu osoa lortzen da, beste kirol mota askorekin gertatzen ez dena"; disiplina hau nolako den definitzeko zera esaten digu, "entrenamendu-etan kirola da eta ezibizioetan arte bihurtzen da".



Hogeitamar neskek ikasten dute gimnasia erritmika Arrasaten

Ritmika egiteko erritmo aldaketa duen musika mota erabili behar da, "lehen pianozko musika bakarrik erabiltzen zen; orain perkusioa eta beste instrumentoak ere sartzen ari dira".

Anorexiaz gaixo omen ziren gimnasten kasua komentatzen dugu, "nik beti jan dut denetarik; baina entrenadoreek pisu bat exigitzen diete, eta batzutan bai pasatu egiten direla. Behin Arrasaten izan zen exhibizio batean, neska bati, pastel bat jatearren, entrenadoreak ez zion utzi lehiaketan parte hartzen. Ni ez nago horren alde".

Ia atal honetan fijoja egiten ari den galdera berari ere egin diogu, zertan datzan kirolaren gaur egun-go "boom" a, alegia. "Bai, egia da. Orain kalean ere txandalaz ibiltzea ondo ikusita dago. Dena dela, jende askok kirolaz okerreko ideia dauka. Hilabete batean "en forma" jarri eta mitxelinak kendu nahi ditu eta hori ezinezkoa da. Miraririk ez dago".

**Mondrako lehendakari berria**  
Gaur hilaren 7a da azken eguna Mondrako lehendakaritzarako kan-didaturak aurkezteko. Orain arte bakarrik lehendakarigai bat dago, Jose Luis Etxebarria Izurrategi, "Porru" atxabaltarra, hain zuzen. Honek Zuzendaritzaren apoioa dauka. Lehendakaria aukeratzeko Asanblada datorren hilaren 14ean, arratsakdeko 7etan Monterronen izango da.

**Taldeak AUKEAra itzuliko omen**

Badirudi Udalaren eta AUKEAren klubun arteko tirabirak konpontzen ari direla. Asteleheneko Gobernu Batzordean alkatea taldeen ordezkariekin izandako bileraz mintzo zen, eta badirudi bi erakundeen artean izandako arazoak komunikazio faltagatik izan direla. Hau dela eta, hilero biak biltzea erabaki da.


### KIROLAGENDA

- **futbola:** igandean, 5etan: PE-DRUSKO - Abetxuko, 3. Dibisiora igotzeko fasea ("klubaren eguna"). Igandean, 5etan: Gemika - MONDRAGON.
- **eskubaloia:** larunbatean, 4etan, Kadete maila: ARRASATE KIROLAK - Ormaiztegi. Larunbatean, 6,30etan, 2. Dibisioa: Arrate - ARRASATE K.
- **saskibaloia:** larunbatean, 6etan: OKENDO K. - Zornotza.
- **rugby:** larunbatean, Bilbon: Universitario XV - ARRASATE
- **pilota:** Larunbatean, 4,30etan Bergara: Ansola, Retegi IV. - Soroa III. Urria

### Denborapasen soluzioak

**Bokalak jausi dira**

"Egoera bat zeinetan erlojuaren tik-tak ere konpainia egiten duen"



**EGIDO** Ordezko Piezak  
Automobilerako ordezko piezak

Legarre Pabiloia. Tfnoa: 79 62 11


**KIROLDEGI**  
Jatetxea

Eguneko menua  
eta  
karta

Musakola Auzoa. 79 82 31



## Diseinu industrialia Arrasaten hedatzen hasia



Diseinu industrialia beste herrialde batzutan aspaldi garatutako industria dugu, Ipar Europako herriak, Japon Alemania edo Hirugarren Munduko zenbait estatutan aspaldi konturatu ziren beronen garrantziaz

eta jadanik garatua dute industri mota hau.


Estatu Espainolean orain arte Catalunya izan da diseinuaz zerbait arduratu den herrialdea, baina ez diseinu industrial alorrean, dekorazioan baizik.

Arrasaten 1988tik aurrera Diara kooperatibak diseinu industrial lanak egiten dihardu. Berau Eskola Politeknikoak bultzatutako ideia dugu, ingeniari eta edo arkitektura amaituta zuten diseinadore batzuri irtenbidea emateko asmoz eta bertara jo dugu lan honi buruz zertxobait jakin nahiean.

Bertan azaldu digutenez, beraiek edozein enpresatarako egiten dituzte lanak, berau industria baldin bada. Ez dute sektore berezi batentzat lanik egiten eta honek abantaila handiak ematen omen dizkie, sektore batetan ikasi dutenaz baliatzen bait dira beste batentzat lanak egiterako orduan.

Zehazki beraiek produktua diseinatzeaz gain, merkatu ikerketak egiten dituzte, produktu horren aurrean konsumatzaileak izan ditzakeen jarrerak aztertzeke asmoz eta produktua diseinatu ondoren, beronen lan-tzamenduan laguntzen dute, materialak aukeratu, aurrekontuak egin, lanabesak aukeratu etab. Azken lan bi hauek burutzea nahiko zail gertatzen omen da, tekniko falta dago eta.

Lan mota hau eskatzen duten enpresak, elektragailuak eta "maquina herramientak" egiten dituztenak dira normalean, eta ez dira oso enpresa handiak izaten, hauek beren diseinadore ekipu berezia izaten bait dute normalean. Dena den, Diarakoen ustetan, hauek ere askotan kanpokoen lanaren beharra izaten dute, ideia berrien beharrean izaten bait dira, baina hauek orain arte ez omen dute konfidantzarik izan kanpoko diseinatzaileengan.



### HIRU S.A MEKANIZAZIOAK

- \* Doitasunezko mekanizazioa plano eta langilen arabera
  - \* Fresatzeko makinak
  - \* Zenbakizko kontrola
  - \* Mekanizazio - zentruak
    - \* Tornuak
- \* Artezteko makinak, etab.

Zaldispe kalea, 10 ARRASATE Tfnoak:79 67 80 79 05 61

Posta kutxa 95 .Telefax:79 80 97



# Hiru ziren, eta orain lau

Musikaz diharduten komunikabi-deek fenomeno berri batetaz mintza-zen hasiak dira: neska kantarien belaunaldi baten sorreraz, hain zuen. ETBko "Katu kale" saioak, adibi-dez, informe luzea eskeini zion duela gutxi gai honi, "neskak kitararekin" izenpean. Honelako taldekatzeek beti duten sinplifikaziorako arris-kuaz gain, kasu honek badu, aparte, bere matxismo puntua zen, neskak izan partez mutilak izan balira, gai hau ez zen seguru asko fenomeno-tzat hartuko. Dena den, gaia hor dago, eta arrakasta haundiz egon ere.

Suzanne Vega izan zen aintzin-daria. Lehen diska minoritario be-zain eder haren ondoren, "Luka" kantuarekin mundu zabalean ezagu-n bihurtu zen, duela pare bat urte. Ondoren, Tracy Chapmani etorri zen eta Mandelaren omenezko jaialdi munstroan bere kitarra soilarekin

agertu zenetik, kantari ospetsuenen artean kokatuta dago. Hirugarrena, -beste biak baino ezezagunagoa bada ere- Michelle Shocked da, bere bi-garren diskarekin lehenengoan ira-garritakoa erabat baieztatu duen kantaria. Eta belaunaldi honen az-ken emaitza -aipagarrienene artean- Tanita Tikaram litzateke, oraintxe ezagutzera ematen ari den kantari gaztea.

Duela bospasei hilabete ikusi nuen lehen aldiz Tanita, Europako telebista kate batean. Eta kolpatu egin ninduela aitortu behar. Bere ahotsak eta oboaren laguntzak giro berezia ematen zioten kantu hari, "Twist in my sobriety" kantuari, hain zuzen. Berehala soma zitekeen kantu harek ospea lortuko zuela, emaitza borobilenzeinuak bait zera-matzaten beregan. Eta horrela izan da, izan ere. Makina bat aldiz ikus

ahalk izan da geroztik Tanitaren bideo ederra hemengo telebistan ere.

Ez dakit lau kantariok belaunaldi bat osatzen duten ala ez, eta egia esan, ez dit asko axola. Musika ona egiten dute eta hori da benetan in-portantea. Eta bakoitzaren lanak badu bere ikutu pertsonala. Hitz batez definitzekotan, Suzanne Ve-gari finezia, Tracy Chapmani indarra, eta Michelle Shockedi inten-tzioa dagozkiela esango nuke. Tanitari, berriz, misterioa. Bere ahotsari, batez ere erregistro sakonetan ari denean, nolabaiteko kutsu misterio-tsua dario, bere aurpegiak eta bi-deoan erabili dituen irudiek areago-tzen duten kutsu nabaria.

Belaunadi ala ez, hiru ziren eta orain lau. Suzanne, Tracy, Michelle eta Tanita. Edota finezia, indarra, intentzioa eta misterioa.

Mikel Irizar



**Hau zer den jakitea nahi ba duzu etor zaitez gurera**

Otalora kalea Tfnoa: 79 29 09 ARRASATE

**MONTE TABERNA**

Maalako Errebala, 11  
Tfnoa: 79 20 56



**Ekaitz**

GOSARIAK

Goizeko 7etatik zabalik, astelehenetik ostiralera  
Otalora, z/g.  
Tfnoa: 79 37 76

**OSTARKU DANTZALEKUA**

ZATOZ IGANDEETAKO LOTORA! ASTE HONETAN 10.000PTAKO SARIA

**Hezurak astintzeko lekurik aproposena**

Uribarri Etorbidea 8



## Errezetak

Gaur bi errezeta dakarkizuegu: bata, gure aurrekoentzat oinarritzko jana zen morokila eta bestea, Arrasaten oso estimatua den arbigarena.

Morokilarena jakiteko Bedoñako "Aratzia"ko Dominga Galdosengana jo dugu eta hona hemen zer esan digun.

### MOROKILA

Osagaiak: ura, arto irina eta gatz.

Ura berotu ondoren arto irina botatzen da, eragin sosegus zurezko koilara batez su motelaren gainean dagoela, bestela pegatu egin daiteke eta. Jarraitu eragiten pil-pil puntura ailegatu arte, bechamelaren sendaeraren antzekoa lortu arte.

Atera platerera bakoitzak jan nahi duen beste, utzi hozten apur bat eta esne beroa gehitu eta dena nahasi jan.

Gorputza berotu eta matrailak

gordin gordin jartzeko oso aproposa ei da.

Aurtengoa, bestalde, ez ei da izan arbigara urtea, bazter guztietan jo eta pasatuta utzi ditu eta. Hala eta guztiz, bada saltzailerik azoka aldean eta prezio onean saltzen dituela gainera: kilo 150 pezetatan.

Halako arbigara batzu hartu eta Luis Mari Uribetxebarria "Eperra"rengana joan gara berak zelan prestatzen dituen preguntez.

Argi eta garbi utzi gura izan digu ur bakarraz egostea dela berarentzat egokiena eta hara berak emandako errezeta:

### ARBIGARA

Osagaiak: 2-3 lagunentzat kilo bat arbigara inguru behar dira.

Ura, gatza, hiru-giharrea, 100 gramu inguru; berakatz atal batzu eta olio.

Lapiko haundi batetan ur ugari

jarri berotzen.

Arbigarak oso ondo garbitu karakolak, bareak eta lurra kentzeko.

Urak irikindakoan, arbigarak oso osorik bota. Ondoren gatza eta olio gordin apur bat. Estali eta ordu bat inguru eduki irakiten.

Atera eta ura ondo kendu. Horretarako trapu batetan batu eta estutu harik eta ur barik geratu arte.

Azpil batetara atera eta laban batez zatitu.

Zartagina batetan olio jarri eta berotzen den bitartean hirugiharrea txiki txiki egin eta zartaginara bota kolorea hartu arte. Orduan, berakatz zatituta gehitu eta kanela kolorea hartzen hasten denean, arbigarak bota, eragin batzu egin eta, nahi izanez gero, pipermin pittin bat gehitu. On egin!

*Morokil Taldea*

## ITSASKI

arrandegia  
arrain freskoa  
eta  
jaki izoztuak  
Urbe Auzoa  
Arrasate. 79 98 94

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak

Industrialdea

ARETXABALETA

## BENGOA

ERAIKUNTZAK ETA BERRIZTAPENAK

Arkarazo Auzoa z/g Tfnoa: 79 21 76 Aretxabaleta

## PAZI-OLA SA

Zaldizpe kalea, 2  
Tfnoa 79 29 94  
ARRASATE

## ARRASATE PRESS

Bidaliezazkiguzu  
zure kolaborazioak

## CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



## Gorputzaren Gantzak (II)

Gantzak gorputzean izatea ez da txarra, ez horixe, beharrezkoa baizik, bere kopurua gehiegi haunditzen denean kaltegarri bihurtuko da baina.

Ia animalia guztiek, eta gizakia horietako bat da, gantza gorde eta biltzeko ahalmena dute, eta biltegi honi esker bizirik mantentzea posible izango da batere jan gabe epe luze batetan.

Benetan asmakizun ona dugu hau eskastasun garaietarako, baina ugartasun denboraldietan arrisku ederra sortzen digu, gehiegi jaten duguna gantz bihurtuta gure soinean gordezen bait dugu.

Har dezagun 70 kilo eta %15 gantz duen pertsona bat, bere soinean 10.500 gramu gantz ditu eta 94.500 gordepen energetiko bezala gutxi gora behera, 50-60 egunetan batere jan gabe mantentzeko nahikoa...

Janarien bitartez lortzen ditugun

kaloriak eta gastatzen ditugunak berdinak direnean balantze energetiko orekatua dugu: 2.500 kaloria behar badira eta janarien bitartez 2.500 lortuz gero. Baina 3.000 kaloria badira janariekin sartzen direnak, erretzen ez diren 500 kaloria horiek gantz bezala gordeko dira soinean "Mitxelinak" sortuz. Beraz, kasu honetan lortu den balantze energetikoa negatiboa izan da.

Alderantziz, balantze hori positiboa izango da 2.500 kaloria behar izanda 2.000 besterik janariekin hartzen ez direnean, falta direnak erreserba depositoetatik hartzen direlako.

Egin dezagun kalkulotxo bat, jateko plazerraz gozatuz egunero behar diren baino 200 kaloria gehiago sartzen ditugunean zer gertatzen den ikusiko dugu (guzti hau gauza nahiko erreza eta askotan gertatzen dena) aste betean 147 gramu


almazentatuak izango dira, hilabeteetan 580 eta urtebetean 7 kilo izango dira gorde direnak gorputzeko eta gantzak gehituz, horrelako errez. Azkoz zailago gertatzen da horiek galtzea...

Arrasaten egindako inkestan (hainbat aldiz aipatutakoa) kontsumitzen ditugun kalorietatik %44 koipe iturrietatik lortuak izan dira eta egunean pertsona bakoitzak 3.000 kaloria hartzen ditu janariekin. Gehiegi, dudarik gabe.

Laburtuz, oro har, gure dieta hiperkalorikoa eta hiperkoipetsua da eta ondorioa bertan dugu: pertsona helduen artean %50ean loditasuna neurri ezberdinetan agertzen da, orain hobeto ulertzen dugu...

Beraz gogoratu: gehiegi janez lortzen diren kaloriak ez dira lurrunduz galtzen, gantz bihurtuz gordezen ditugu.


*Eukeni Olabarrieta  
Arantxa Lizaso*



**MERKATAL ZENTRUA**

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ





### AHIZKE-CIM Koop. E.

ACEIG-FECElko kidea

Cambridge Unibertsitateko PETeko  
Batzorde Antolatzaileko Kidea

**"Hizkuntza bat gehiago,  
muga bat gutxiago"**


Loramendi 7, Tfnoa: 79 01 32

## GABINETE MEDIKOA

**Medikuntza  
Digestiobidea  
Endoskopia  
Ekografia  
Analisiak**

Ferrerias, 1.  
Tfnoa: 79 15 08

Erdiko kale 79 19 37




Ferrerias 79 87 62

## MUSAKOLAKO OSTATUA

**Taberna  
Jatetxea  
Bazkariak  
Bodak  
Banketeak  
Gelak**

Gipuzkoako Etorbidea z/g Tfnoa: 79 20 50



### FAMILI ETA GIZARTE- HEZKETARAKO ZENTRUAK

**Arratsaldez. 3,30etatik  
aurrera.**

**Ekintzak Apirilaren 3an  
hasiko dira**

**Astelehena:** Ebaketa eta  
Jantzigintza (3,30etan)  
Sukaldaritza (6,30etan)

**Asteartea:** Pintura eta gakorratz-  
lana (3,30etan)  
Pintura eta Marrazkia (7etan)

**Asteazkena:** Psikologia: (3,30etan)

**Osteguna:** Eskulanak: Tarzea,  
portzelanazko panpina, lanketa,  
eztainua, kristala. (3,30etan eta  
6,30etan)  
Sukaldaritza (6,30etan)

**Ostirala:** Sukaldaritza (3,30etan)  
Pintura eta marrazkia (7etan)

**Hautzaindegi Zerbitzua**

Santa Teresa 12, Tfnoa:  
79 04 59 Arratsaldez



## PROMESA MAILAKO IV. TXAPELKETA

**Apirilaren 9an, Igandean**

- \* Hasi: 10,30etan
- \* Bukatu: 12,00etan
- \* Ibilbidea: 40 Km

**Musakola-Eskoriatza-Musakola; birritan egin,  
Musakolan bukatzeko.**

\* Hasierra: Hostala aurrean.

\* **Antolatzailea:** - Arrasate Txirrindulari Taldea Musakola Auzoa

\* **Laguntzailea:** Aitor Automoviles

**ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN**

**IZEN-DEITURAK.....**

**HELBIDEA.....**

**HERRIA.....**

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64



**ETXEBIZITZAK**

- Garagea salgai Erdialdean. Tfnoa: 791923
- 60m<sup>2</sup>ko merkataritzarako lokala salgai. Tfnoa: 797480
- Arrasaten Mertzeria bat esku aldatzen da. Prezioa interesgarria da. Edozein negozio egiteko. Tfnoa: 796578-797916.
- Mutil eta neska! gelarik libre edo banatzeko baduzu, ondo etorriko litzaidake. Ez dut trabarik egiten. Lanean ari naiz eta egoteko tokia behar dut. Deitu 795289 tfnora. Aste bukaeretan: (94) 6849053.
- Alokatzeko pisu bila gabilta Arrasaten 3 pertsona. Interesatuak dei: 795431 Tfnoa. (gaueko 8etatik aurrera)
- Donostia: konpartitutako pisuan gela edo pisua alokatzeko neska bila nabil. Tfnoa: 796287
- Pisu konpartitzeko pisua behar da. Dei 796982 Tfnoara gauetan.
- Bikote batek, lehenbait lehen pisu bat errentan hartu nahi du. Tfnoa: 79 70 29. Inaki
- Aretxabaletan zapatadenda bat errentan eman nahi da. Tfnoa: 790214
- Ikasleak alokatzeko pisu bila. Tfnoa 551443.
- Pisu salgai erdialdean. Tfnoa: 790773
- Neska edo mutila behar da pisua konpartitzeko. Tfnoa: 795461 (eguerdiko 12etatik arratsaldeko 2etara eta gaueko 9etatik aurrera)
- Erdialdean pisua salgai, Banco Bilbao, 115m<sup>2</sup>ko etxebizitza, garage indibiduala eta ganbara. Tfnoa: 795111
- Etxebizitza salgai Bergaran. Tfnoak 763855-764453
- Lehenbait lehen pisu bat errentan hartu nahi dugu Arrasaten, merkea bada hobe. Tfnoa: 790900. Lorea.

- Paper-jostailu denda esku aldatu nahi da Uribe AUzoan. Interesatuak dei 79 47 85 telefonora.
- Culleran (Valencia) pisua errentan eman nahi da urte osoan zehar. Tfnoa: 79 71 94.

**LANA**

- 20 urteko neska batek umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 797992. Informeeekin eta erantzulea.
- Emakume euskaldun batek etxeko lanak edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 790773
- Eraikuntza irakaslea behar dugu. Interesatuak dei 797938 telefonora.
- Lan Kide Aurrezkia (Euskadiko kutxa) Zurgintzarako makineria alorreko enpresa lider batek, behar du: Pertsonal zuzendaria.
- Emakume bat behar dugu, etxeko lanak egin eta 7-12 urteko haurrekin arduratzeko, ahal balitz euskalduna. Interesatuak dei 795150 telefonora, arratsaldeko 7,30tik 9,30etara.
- Neska edo mutila behar da gozotegi batean, arratsaldetan lan egiteko, larunbat eta igandeetan ere bai. Tfnoa: 79 64 50
- Emakumea behar da hilabete gutxiko umea zaindu eta etxeko lanak egiteko, ahal balitz euskalduna. Berehala hasi eta bi urtetarako luzatu daitekeelarik. Interesatuak dei 79 66 38 telefonora. 6 terdietaetik 7etara.
- Irakasleak behar dira. BBB eta UBIRako (Matematika eta Fisika) eta Ingenieritzarako (Kalkulua, Algebra eta Fisika). Interesatuak dei 76 40 33 telefonora.

**SALEROSKETAK**

- Talbot-Samba SS-P salgai. Tfnoa: 782499 eta 782704 (bulego-ordutan)
- SS-2601-T matrikula duen R-11 salgai. Helbidea: Etxostea 18, 3 ez. Tfnoak: etxean 796751 eta lantokian 794700. Gerardo galdetu.
- Ia berri dagoen bi ohe tolesgarrizko armairua salgai. Prezioa elkarren artean jartzeko. Interesatuak dei 797891 telefonora (3etatik aurrera)
- Salgai:\* logela, bi ohe, gaumahaia eta gorputz bikoitzeko armairua.
  - \* Logela, apainmahai eta gaumahaiaekin.
  - \* Sukaldeko mahaia, aulki eta aulkik xoeekin. Interesatuak dei 793966 telefonora
- R-6a erosi nahi dut. Dei ezazue ofizina ordutan 79 71 64 Tfnoa. Goio
- 10 abiadura eta 54 neurrizko " Corbeta " bizikleta salgai dago. Tfnoa:79 58 29

**DENETARIK**

- Egunero Gasteizera joanetorria egiteko kotxea behar dut. Gasolina gastoak erdibana. Dei eguardian 79 35 47 telefonora. Asun.



**ARRASATEN HILDAKOAK**

Juana Sanchez Casado, 66 urte  
Martxoaren 29an

Benardo Arakama Perez, 22 urte  
Martxoaren 29an

Juan Barrutiabengoa Gallastegi, 60 urte  
Apirilaren 1ean

Jose Lizaso Olasagasti, 68 urte  
Apirilaren 3an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

**TESTUA:**.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Zeharkale estalia 1,1b 20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64



## Famauen ahotik



**Gman Moreno: "Euskeriei asko zor jutzat nik"**

### FTXA TEKNIKUE

**IZENA:** German Moreno Rodriguez

**JAIXO:** Segovian, Aldeasonia,  
1939-II-22

**BIZI:** Segovia, Aramaixo, Sta. Agera,  
Eskoitza, Mundraue

"...Egun osue puliziñuen eñ eta gero orduak sartzen bizikletie pagetako..."

### Segoviatik Aramaixora...

Lau urte naukela etorri gitzuan famelixa osue Aramaixoko Benta-Motz beserrere. Han etxauan ez Urik ez argirik ezebe. Goseik haundixenak hantxe pasau nittuan. Jaiki eta ahora zer eruenik ez!

Handik aitta-amak Eskoitzara eta ni 7,8 urtekin Sta Agerako Trojaolanera kriaui. Eskolara jueteik: etxauan orduen; Izotz galantakin "ittaurren" akulutxuaz. Baitte behin baino geixauten edurretan arbi ataraten be... hartu balde baten ur berue eta edurre kentzeko palie bizkerrien eta solora.

Behin hainbesteko hotza naukan, hankak sartu nittuan baldien, kontrastiaz emun jutzan mifiek eta uesabak hartu bizkerrien eta etxera eruen bier.

### 11 urteaz Puliziñora

Trojaolanien 3 urte einddekuen Eskoitzara Gurasuekana, eskolan apurtxo bat ibili eta 11 urteaz hartu bizikletie eta Mundrauera "Genaroner" puliziñora lanien. Egun osue eñ eta gero, Eskoitzara beste taller batera bizikletie pagetako orduak sartzen.

Gorriřek pasautekue nok. Sekule etxuztek inok ezer ahora emun!

### Ikastolako fundadore

Ikastolie oin dala 22 urte sortu zuan. Han ibili nitzuan beste batzuekin batera, egurrek atara, garbittu pinttau... Diru eskien be bai etxeiketxe, kristonak entzun gittuan Okina kontzejalak eta bixok.

Hasierie 17,18 umekin emun jakuan eta bata neure alabie. Askok preguntetan jutzien: "Umiek ikastolara eruetie mereziu jok". Nik esaten nutzian, "bañe mutillak zueiek bertako semiek izen eta niri preguntien zatoze ba! Neuk garbi naukan ikastolie aurrera atara bihera. Euskeriei asko zor jutzat nik.

Ikastoliaz aparte be, futbolen, pelotan, mendiko "marcha regulade"tan... zetan ez!

### Ezkondu be gazteik...?

Bai 20 urtekin ezkondu nitzuan... Mundraue osuen famosue eñ nitzuan, famosue!

Jose Luis Ifiarrak ezkondu gittuan, Parrokixan. Haretzek animau ninduan asko. Eskerrak hari!

*Estepan Plazaola eta J. M. Garai*

## Zelebrequerixak

### Antzuolako txapelketako txisteak

Hamen e, juntau die hiru lagun, hamen "Ongi Etorri" xan, hiru base-rittar, bata Arlutzekua.

— Ba gurien e, patata urte eska-xa aizen da ba, siku be jo dau ta bape eztau etaa.

Ta beste bata Altzetakua:

— Gurian piñuak kriston kaltia, izotzak danak igartu.

Ta beste bat Mixokua:

— Joe, enajoiak ni esan be esatera. Gurian erremolatxatan.

— Erremolatxatan? — esan i jotsen bestiok, e— Erremolatxiandako urte ederra izen da ba aurtan, humedia ugari tta, lur ona gertau bada, ta...

— Jo, kriston kaltia. Kontauko-tsuet: erremolatxia zeozek jan eitte oskuan, da, mekauden, esan najotsan andriai e, kabuen sos, zaindu bihakou. Hanka markaik pe ez zan geratzen, ze ete da?

Hartu eskupetia kotxian, da joan da. Jarri da muga kontra baten da:

— Hanka hotsera akordau nitzuan. Taka taka taka, ta, zeoze bajatok pa hor. Taka, ta erremolatxa saillian. Jarri da apuntatzenda: erbi-xa ete da, astua ete da. Tiratuko ete dotsat, ez ete dotsat. Tiratu najotsan da hogetabost kiloko erbixai hi. Mekauen.

Da albotik besten batek:

— Bueno hi, horri beruana kendu ein bihako jako.

— Hi, artian erdixa kenduta be galanta geratzen dok.

*Asier Agirrebeña (Bergara)*

*Juan Martin Elexpuru*

# M A

**ARENAZA**

Altzariak  
Discinua  
Apainketa

Bizkaia, 1 Tfnoa: 79 08 07

Aretxabaleta

## Eroski Kontsumatzaileen Komitea

## Informazioa eta Formazioa.

Gure bulegoa: Uribe Auzoko Eroski dendan





Arrasateko ikuspegi orokorra gerra aurrean

**H**irigune zaharra. Aurreko batean Ifarraldetik hartutako ikuspegia


azaltzen bagenuen, gaurkoan Hegoaldetik begiratuta ikusleari eskaintzen zitzaiona dakargu. Santa Barbara ingurutik ateratako argazki honetan, San Juan eta San Frantzisko elizez gain, hirigune zaharreko bi kaleren egiturak ere

garbi samar nabari ditzakegu: Erdiko kalearena ezker aldean eta Iturriotz kalearena erdialdean, alegia; atzerago, berriz, Pedro Biteri filantropo mondragoetarrak jasoarazitako eskola famatuak, duela hainbat urte aparkaleku bat egiteko bota zirenak. Argazkia, jakina, gerra aurrekoa dugu eta I. Ojangurenena ■

— *Herria ezagutuz* —  
*Sariketa.*

Zeuk aukeratutako euskarazko bideofilmea -VIGURI Bideo Klubak emana- irabazi nahi baduzu, aste honetan bertan postala bidali galdera honi erantzunez: **Zein kale-tan jaio zen Pedro Biteri filantropo mondragoetarra?**

**PUB HAIZEA**



**OSORIK**  
**pub**  
Ignazio Zuloaga





**UN FUTURO PARA NUESTRO PASADO**

claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas

José M. Sánchez Carrión  
"Txepetx"

**LIBURUAREN AURKEZPENA**

Antolatzailea: Babesleak:

**APIRILAK 11, ASTEARTEA**

**LIBURUAREN MAMIAREN AURKEZPENA**

Hizlariak:

Dionisio Amundarain (Maizpide Euskalte-giko Zuzendaria)

Iñaki Larrañaga (SIADKO Taldekoak)

Julen Arejolaleiba (Eskoriatzako Irakasle Eskolako Irakaslea)

**APIRILAK 13, OSTEGUNA**

**EUSKALKIEN ETA EUSKERA BATUAREN ERABILERAREMUA**

Hizlariak:

Koldo Zuazo (EHUko Irakaslea: Gasteiz)

**APIRILAK 18, ASTEARTEA**

**ERITZI ETA ESPERIENTZI TRUKAKETA TALDETAN**

Hizlariak:

J. A. Irigarai (Idazlea)

Txema Larrea (EHUko Irakaslea)

Juan Carlos Etxegoien (Irakaslea, Komikilaria)

Lekua:

**ARRASATE. MONTERRON Kultur-Etxean, 7etan.**



**ARAMBURU  
COTEMAR**

**garraio agentzia**

Zaldizpe 3, Tfnoak 79 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde, 40 ARRASATE 79 13 78

**ARRASATE  
PRESS**

**Astero zuekin**

**KLINIKA DENTALA**

**Odontologia orokorra  
Ortodontzia  
(Umeentzat ere bai)**

Iturriotz kalea, 7 Tfnoa: 79 73 88

**UGARAN  
jatetxea**

Garagartza auzoa - t/797658 Arrasate

**empresa  
bazkariak  
eta  
famili bilerak**



*Poesia gaztea dakargu berriro ere gure orrialdera. Irudi arrigarriak, eta sintaxi apurtuaren bidez giro misteriotsuko poemak sortzen ditu gure lagunak.*

**U**meak eskolan dauden bitartean

jainkosa mutilatuak  
marmoreari eutsiz

kalatxori despistatuak poemetaraino  
hurbildu dira

sasitzan bonba lehertu gabeak  
fotokopia makinen konpontzailea

tabernan kopetilun  
umeak eskolak direno

ametsik lizunenak

gerra kimikoari buruzko berriak  
tangoa versus mozkorra

bakardadea  
topiko bi

pianorik sekula santan eukiko ez duenaren segurantza

butanoa,

eta egiaren azaleko tatuaiak.

**O**raindik itsasoa

gurpil guzien mehatsua  
elektrizitate konkaboa

guraso nekatuen nekeaz batera  
oraindik

monosilabo maskaratuen alboan  
hirugarren munduko zorra

eta izotz etsia

koloreen nomadismoa  
errito ohia

oraindik piramide gabea  
bere buruaren plajio amaigabea


zaurien zera  
aleazio lotsatia.

*Txema Abarrategi*



Ferrerías, 23  
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Fotokopiak  
Enkuademazioak  
Planoen erreproduzioa  
Offseta



**SAMEGO**  
GARBIKETAK

Alfonso X. Jakintsua, 5  
Tfnoa: 79 70 39 ARRASATE



**JESUS ELKORO**

BIDEO - KLUBA

Tfnoa: 791886 ARRASATE



■ **Madonna eta Kaxiano:** 250 milioi inguru teleikuslek ikusi zuten munduan zehar Madonna abeslari amerikarraren *Like a prayer* bideoa, Pepsiren iragarkian. Abesti hau izan da dendetan salgai azaldu aurretik iragarki moduan plazaratu den lehenā. Publizitatearen uni-bertsoan mugari berria, seguru asko.

Gugandik hurbilago, eta ikuslego askoz ere apalagoaren aurrean, Kaxianok bere hurrengo diskoaren primizia eman zigun, ETB1eko "Funtzioa"n. Zalantza barik Arrate, Segura eta halakoen hit-paradean berehala gailurra joko duen kanta. Loiolako Herri Irrati-koek ere himno aproposa izango dute beren "Novios 89" sariketara-ko, aipatu abestia ezkonberriei eskainita dator eta.

■ **Kale kontuak:** Arrasate Press-en 13. zenbakian nire eritzia eman nuen Euskadi Irratiko "Goizean behin" magazinean 12:50ak inguruan antenaratzen den "Kale kontuak" irratsaio dramatikoari buruz.

Aipamen hura dela eta, Aste Santu honetan Goizean behinkideek oso gutun atsegina bidali didate, eginkado kritika eskertzeko: "poztu gaituk benetan norbaitek sikiera bere eritzia agertzeagatik, eta erabat ados gaudek gainera".

Jarraian, dramatizazio hori egiteko dituzten limitazioen berri ematen dute, "hemen ez zegok ez gidoilari, ez antzezle, ez errealizatzailek. Ondorioz, ahal bezala gidoiak moldatu, irratiko bertako langileen borondate onaz baliatu eta abiatu gintuan... eta hortxe jarraitzen diagu, nola edo hala".

Bitarteko eta prestatze falta argi ikusten badituzte ere, dramatizazio baten beharra sentitzen dute, "puntu honetara iritsiz gero betiko dilema edo eztabaidan sartzen gaituk: merezi al dik egiten dugun gauza urria egiteak edo hobe geniake baliabide gehiago izatera heldu arte bertan behera uztea gure asmo guztiak? Guk ere behin baino gehiagotan galdetu zioagu hauxe geure buruari, eta azkenean, sikiera, pauso txiki bat izango delakoan, aurrera jarraitzeko apustua egin diagu".

"Goizean behin"eko lagunak, baldintza horietan egiten duzuen lanagatik errespetoa aitortzea besterik ez zait gelditzen, zuekin bat bait nator hobearen esperoan ezin dela beso gurutzaturik egon. Ekin eta jarrai, eta mila esker gutunagatik!

*Joxe Aranzabal*



## gusto baduzu

■ **Sustrai,** larunbatean, hilak 8, 13,30etan. Hamahiru kapitulutako programa berria. Nekazaritzari, Abeltzantzari eta Basozaintzari buruzko gaiak tratatuko dira bertan: sail hauen gaur egungo egoera Euskadin, eta Europear Elkarte Ekonomikoan sartzeak ekarriko dizkion ondorioak. Programa bi dokumentalek eta atal informatibo batek osatuko dute.

■ **Galde debalde,** astelehenean, hilak 10, 19,05ean eta asteartean, 13,30etan. Oraingo honetan Eibarreko Mogel Ikastolako ikasleek Joserra Gartzari botako dizkiote galderak. Joserra idazlea dugu, eta ETBn "Hitzeti Hortzera" bersolaritaz programa zuzentzen du. Garai batean Arrasateko Ikastolaren irakaslea izan zen.

■ **Panpin etxea,** ("A Doll's House", 1973). Larunbatean, hilak 8, 22,10etan. Zuzendaria: Joseph Losey. Antzezleak: Jane Fonde, David Warner, Trevor Howard. Ibsenen obran oinarritutako film honek pertsonai bakoitzaren azterketa sakona eskeintzen digu. Denak zerbait izkutatzeko behar-rean dabilta, bereziki emaztea, xantaiaren menpean sentitzen delarik.

## bideoak



**Noeren untzia:** "Abenturarik Gorenena" kolezioa Bibliako bost pasartez osatuta datorrigu, marrazki bizidunetan. Denboraren tunela halabarrez aurkitzen duten hiru gazte izango dira istorio hauen lekuko eta protagonistakide. Istorioak 30' dirau, euskaraz. Ondoren 15'tako irudi popurrria eta azken 10'etan gaitzetzeko abenturen trailerrak, erdaraz!

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



	G			R			B		T		Z		N
	T		N			R	L		J			R	N
	T		K	-	T		K		K			R	
K		N	P			N					G		T
N		D			N								

## Bokalak jausi dira

Hurrengo testuko bokalak jausi egin zaizkigu. Asma itzazu zeintzu diren eta "bakardadea"ren definizio bitxi bat agertuko zaigu, B. Atxagaren Obabakoak liburitik jasotakoa.

Laguntza: Behar dituzun bokalak: A A A A A A A A  
 E E E E E E E E E E  
 I I I I I  
 O O O  
 U U

Soluzioak: 19. orrialdean.

P. Mokordo

# Horoskopoa



**ARIES**  
 Martxoaren 21etik  
 Apirilaren 20ra

Zure baitan daramazun agureak martxa eskatzen dizu. Azkenean bizitza gozatzeko dela berak ere ulertu du. Bazen ordua, baina berandu inoiz ez baino hobe, ezta?



**LEO**  
 Uztailaren 23tik  
 Abuztuaren 23ra

Indartsua zara, bai, baina bizimodu hori inork ez luke jasango epe luzera. Beraz, hasi ohitura txar hauek aldatzen (bakarrik kalte egiten dizkizutenak,eh?)



**SAGITARIUS**  
 Azaroaren 23tik  
 Abenduaren 21era

Lehenego pausua eman duzu baina ibiltzen jarraitu, orain hasitakoa utzikoa bazenu aukera on bat galduko zenuke. Ilusioa mantendu eta dena primeran aterako da.



**TAURUS**  
 Apirilaren 21etik  
 Maiatzaren 20ra

Mundu guztiarekin ondo gelditzea nahi izan arren, guztiz kontrakoa gertatu zaizu. Onartu nahi ez baduzu ere, errudun bakarra zu zeu izan zara.



**VIRGO**  
 Abuztuaren 24etik  
 Irailaren 23ra

Mugatua sentitzen zar eta ez zaizu arrazoirik falta. Hemendik aurrera, egoera horri amaiera aurkitzea izango da zure helburua, baina ez gainontzeko dana ahaztu.




**CAPRICORN**  
 Abenduaren 22tik  
 Urtarrilaren 20ra

Kezkatzen zaituena ez da hainbestekoa, kendu ezazu burutik bera bakarrik konponduko da eta. Mugimendu haundiko garaia datorkizunez osasuna eta indarrak ondo zain-teea komeniko litzaizuke.



**GEMINI**  
 Maiatzaren 21etik  
 Ekainaren 20ra

Krisialdi baten ondorioak onak izan litezke. Argi bazabiltza, zer egin eta ze momentutan jakingo duzu. Momentu honetan zer komeni zaizun garbi edukitzea da garrantzitsua.



**LIBRA**  
 Irailaren 24etik  
 Urriaren 23ra

Sevillaraino ezin baduzu joan, hkurbilago ere ondo pasa daiteke, umore ona besterik ez duzu behar. Udaberriak odola pizten du eta zure odola, beraz, ez da hotza hain zuzen ere.



**AQUARIUS**  
 Urtarrilaren 21etik  
 Otsailaren 19ra

Betebeharrak itota zauzkate. Zergatik ez duzu atsedentxo bat hartzen? Egitekotan, benetakoa atsedena izan dadila, gorputzak eskertuko dizu.




**CANCER**  
 Ekainaren 22etik  
 Uztailaren 22ra

Bronka ederra montatu duzuna, baina ez zaitez damutu. Besteei begira egotea inoiz ez da zure gustokoa izan eta momentu honetan askoz gutxiago. Ez al gaude askatasunaren alde?



**SCORPIO**  
 Urriaren 24etik  
 Azaroaren 22ra


Horrela gustora bazaude, ez duzu aldatzeko arrazoirik. Aholku honetaz pasatu eta zure esku dagoenaz bakarrik arduratzen bazara, hobe. Utzi bestea dagokienei.



**PISCIS**  
 Otsailaren 20tik  
 Martxoaren 20ra

Kontuz Cupidorekin, zure bihotza begira dago eta. Amodioaren hatzaparretan jausten bazara, dituzun planak alda daitezke baina, agian, erabakirik hartzea ez dago zure esku.



 Deba Garaiko Herrietako 1988 urteko gorabehera demografikoak

Herria	1988, Urtar. 1 biztanleria	Jaiotzak	Heriotzak	Herrira etorri	Herritik joan	1989 Urtar. 1 biztanleria	1988 urteko gorabeherak
Arrasate	26.231	227	199	188	422	26.026	-205
Bergara	15.802	116	90	203	247	15.784	-18
Oñati	10.864	93	60	60	98	10.859	-5
Aretxabaleta	6.041	53	35	66	76	6.049	+8
Eskoriatza	3.990	18	16	34	53	3.973	-17
Antzuola	2.108	16	12	18	21	2.109	+1
Elgeta	1.036	8	13	12	13	1.030	-6
Gatzaga	219	3	2	3	2	221	+2
Deba Garaia	66.291	534	427	584	932	66.051	-240

# TALLERES MECA

e t a

RENAULTekin

## GUZTIEK IRABAZTEN:

- \*produktu-kalitatean
- \*zerbitzu-kalitatean
- \*konponketa-garantian
- (urtebetekoa piezatan; eta laneskua barne)

TALLERES MECA, S. A. Araba Etorbidea z/g Tfnoa: 79 59 99